

HIERRO: Tadeo Casañes, lainoak
«jetzi» eta auzotarrak salbatu
zituen kanariarra > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Podemos, «Troiako zaldia» edo
aukera berriak? IÑAKI ALTUNA > 11

GAUR8

2015eko abenduaren 26a | IX. urtea • 448. zbk.
0,50 euro

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

GABONAK, BAKOITZAK BEREAK

> 12 Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS



Lainoak «jetzi» eta auzotarrak
salbatu zituen gizona 04

Reyhanliko biztanleek siriarrak
alde egin dezaten nahi dute 08


Gabonak sorterritik kanpo: usadio
propioei Euskal Herriko itxura eta
ahotsa ematen 12

Onddoekin mikorrizatutako
gaztainondoan landaketak
ikertzen 18

Elkarrizketa: Joxe Aranzabal,
kazetaria eta irakasle ohia 22

Infraganti: Kepa Peñagarikano,
pilota hautatzailea 28

Behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Isidro Esnaola:** Zetaren Bide
Berriaren egitasmoa

10 **Ander Gortazar:** «Flipada» bat

11 **Iñaki Altuna:** Podemos,
«Troiako zaldia» edo aukera
berriak?

16 **Ainara Azpiazu** «Axpi»


20 **Arantxa Urbe:** Eskola
kontziliazioa eta etxerako lanak

21 **Amaia Nausia:**
Posterasmusaren bestondoa

27 **Mirari Martiarena:** Giltzak

27 **Koldo Sagasti:** Ateo baten
Gabonetako aholkuak

30 **Ana Arruarte:** Ai ama,
oporretara noa eta...



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoa
BERRIA

{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Zetaren Bide Berriaren egitasmoa

Zetaren Bide Berriaren egitasmoa iragarri zuen Xi Jinping Txinako lehendakariak orain dela bi urte. Izen horrekin Txina eta Europaren arteko loturak garatzeko eta sendotzeko proposamena laburbildu zuen. Praktikan, ibilbidea birsortzeko azpiegiturak eraikitzea proposatu zuen, hau da, inbertsio plan erraldoi bat iragarri zuen. Txinako Gobernuak inbertsio horien inguruan «gerriko ekonomiko» bat sortu eta garatzeko deia egin zien gainontzeko estatuei. Norabide berean, Asia eta Ozeano Bareko Ekonomia Elkarlana (APEC) biltzarreko azken batzarrean Txinako lehendakariak proiektuak «eskualde mailako kooperazioa sakona, zabala eta sofistikatua irekiko duela eta horrek eskualde mailako eremu ireki, orekatu eta guztiontzako onuragarria sortuko duela» esan zuen.

Egitasmoak ez du zehaztapen handirik izan oraingoz.

Aurten, baina, zertzelada batzuk egin dituzte publiko Txinako buruzagiek. Esate baterako, Txina eta Europa lotzeko plan horretan Afrika ere erpin batean kokatzen dute. Hala, elkar osatzen diren hiru bide nagusi marraztu dituzte. Alde batetik, itsas bidea dugu: Txinan hasten da, Indiako Ozeanotik Afrika iristen da, eta, bertatik, Suezko kanaletik, Europan sartzen da. Beste aldetik, Zetaren Bide historikoa da erdiko bidea: Erdialdeko Asiatik

doa, Kaspiar itsasoa hegotik zeharkatzen du eta Turkiatik Europan sartzen da. Hirugarren adarrak Pekin eta Mosku lotzen ditu; bide hau Bielorrusiatik sartzen da Europan.

Proiektuak aldaketa batzuk ekarriko ditu merkataritza arloan, baina nahiko apalak izango dira. Eskualde batzuetan eragin handia izan ditzakete aldaketok, baina fluxu nagusiak ez dira asko aldatuko. Gaur egun, Txinako merkantzien esportazio eta inportazio gehienak itsasoz mugitzen dira, eta, etorkizunean ere, horrela izaten jarraituko du, garraiobide merkeena delako. Bestalde, egun Pekin eta Moskuren arteko lotura badago. Proiektu honekin azpiegiturak zabalduko dira, baina adar horren garrantzian ez da iraultetarik espero. Aldiz, oso posible da pisua galtzea erdiko bidearen mesedetan. Erdialdeko Asiatik doan adarrak egun ez dauka sustantzia handirik. Eremu horretan azpiegiturretan inbertsio erraldoiak egi-

tea beharrezkoa da. Horiek, gaur-gaurkoz, Txina bakarrik egin ditzake, bere ekonomiak ahalbideratzen diolako. Kontuan hartu behar da, batetik, merkataritzako superabitak baliabidez hornitzen duela Txinako ekonomia; bestetik, Estatuaren kontuek ez dute apenas defizitrik eta zor publikoa txikia da. Beraz, plana eta baliabideak ditu Txinak. Inbertsioak bideratzeko, Asiako Azpiegiturretako Inbertsio Bankuak funts berezi bat sortu du. 2014an 40.000 milioi dolarreko inbertsioak egin zituen proiektu ezberdinetan. Funts horretan 50 estatuk parte hartzen dute, tartean Britainia Handia, Frantzia eta Alemania. Ameriketako Estatu Batuek ez dute parte hartu nahi izan. Analista batzuentzat erabaki hori akats larria da.

Nahiz eta oraindik detaile asko ez diren ezagutzen, planaren bueltan eskualdeko estatu guztiak ahalik eta posizio hoberena lortzen saiatzen ari dira. Horrela, Ukrainiak eskaini du jada bere lurraldea goiko adarra garatzeko.

Egun pilatuta dituen baliabideak inguruko herrialdeen garapenean inbertitzeak merkatu berriak irekiko dizkio etorkizunean Txinari. Horrez gain, ingurune askoz seguruagoa eskainiko dio

Errusiako Gobernuak proiektuaren garapena zuhurtziaz ikusten du: erdiko adarra indartzen den neurrian, goiko adarra –Pekin eta Moskuren arteko lotura– ahulduta gera daitekeelako. Errusiako analistek beste bi nazioarteko akordiotan jartzen dute indarra: Eurasiako Batasun Ekonomikoa eta Shanghaiko Lankidetzaren Erakundea. Edozein kasutan, hiru akordioetan Txinak berak du lidergoa.

Zetaren Bide Berriarekin Txinako Gobernuak bere inguruan dauden herrien garapena bultzatzeko apustua egiten du. Egun pilatuta dituen baliabideak beste herrialdeen garapenean inbertitzeak merkatu berriak irekiko dizkio etorkizunean Txinari. Horrez gain, ingurune askoz seguruagoa eskainiko dio, aberastasunaren sorrera eta banaketak gatazkak gutxitzen baititu. Txinak bide guztien zentroan kokatu nahi du bere burua, garai bateko “Erdiguneko Inperioaren” posizioa berreskuratzeko. •

LEHORTEA HIERRON

Tadeo Casañes, lainoak «jetzi» eta auzotarrak salbatu zituen kanariarra

 **GIZARTEA /** Ander Izagirre

Tadeo Casañasek Kanarietako Hierro irlako biztanleak salbatu zituen 1948ko lehortearen garaian. Antzinako kronikak irakurtzen zituenez, bazekien aborigenek zuhaitzetan trabatutako lainoetatik ura ateratzen zutela, eta gauza bera egiten asmatu zuen. Orain enpresa kanariar batek botilatan saltzen du laino-ura.

Urteak (97) bete baino lau egun lehenago, Tadeo Casañasek Hierroko biztanleak egarritik nola salbatu zituen gogoratzen du. Etxeko sofán eserita, barkamena eskatzen du istorioak nahasten dituelako, erdizka gelditzen zaizkiolako, behin eta

berriz itzultzen delako hildakoen engana, Ebroko batailan lurrean botata ikusi zituen gorpuengana, lubakian beste soldadu baten ondoan uzkurtuta pasatu zuen gauera, eta egunsentian soldadu hori hilda zegoela kontatzen du, eta gerraren ondoren Sant Sadurni d'Anoian emaztegaia izan zuela, eta noizbehinka bere etxean gelditzen zela lotan.

Hierro irlaren argazkia. Uharteko erdiko eta goiko aldean Iruñean edo Gasteizen bezainbeste euri botatzen du.
Ander IZAGIRRE

«Neska bere amarekin oheratzen zen, eta nirekin esnatu», kontatzen du Tadeok hiru aldiz, eta hiruretan barre egiten du.

Barkamena eskatzen du istorioak nahasten dituelako, baina batzuk jarraian eta akatsik gabe kontatzen ditu. Memorian irauten dutenak, beste guztiak jada ezereztu direnean: gerra kontuak, maitasun kontuak, egarri kontuak.

1948an ez zuen euri tantarik bota. Hierroko putzuak lehortu egin ziren, lurrak pitzatu, fruta-arbolak ihartu, behiak eta ardiak hil. Gizakiak ez ziren hil, Tenerifetik zisterna-itsasontzia etortzen zelako eta kamioi batek upelak etxez etxe banatzen zituelako, baina familia asko lur jota gelditu ziren. Lehorteak Venezuelarako emigrazio klandestinoa bultzatu zuen: 1948 eta 1950 artean, hamabi mila kanariar 94 belaontzitan abiatu ziren Atlantikoa zeharkatzera.



«Nik eskopeta bat neukan. Nahiko txarra, baina eskopeta», dio Tadeok. Isilik dagoenean, sofán uzkurtuta gelditzen da, begiak ia itxita, mende bateko nekearekin. Hitz egiten duenean, tentetu egiten da, eta begiak hontzak bezala zabaltzen ditu: «Nire aita-amaginarrebek irlaren goiko aldean zeukaten lursailera igotzen nintzen, uso bat edo beste ehizatzer. Ardiak geneuzkan baina urte hartan asko hil zitzaizkigun. Etxola bat erai-ki nuen eta lotara igotzen nintzen, egunsentian ehizara irteteko. Etxolaren teilatu gisa, txilarrak jarri nituen. Eta gau batez esnatu egin nintzen, etxola barruan tantak erortzen ari zirelako. Lainoa zen, txilarretan kondentsatu eta tantaka ari zena».

Tadeok burutazio bat izan zuen. Agabe landarearen hosto luze, gogor eta ildodunak moztu zituen, badaezpadako ubide bat moldatu eta txilarrei zerizkien tantak uharka txiki batera bideratu zituen. Euria jasotzeko uharka hura hutsik zegoen aspaldi, baina lainoak utzitako tantek berehala bete zuten: «Herrikoei esan nien nien ura etxeraino eramango niela, zinkeko xaflak uzten bazizkidaten, ukiluuetako teilatueta zeuzkatena».

Xaflekin txilarretako ur gehiago bildu zuen, Udalak utzitako hodi bat ere gehitu zion asmaketari, eta menditik Tiñor herriraino jaisten zen zorrotada oparoa lortu zuen: minutuko 14 litro ematera iritsi zen. Lehorte gorrian, Tadeok lainoa «jetzi» eta auzotarrak salbatu zituen.

BINBATXEEN ZUHAITZ SAKRATUA

Tadeok behin eta berriz dio berak ez zuela ezer asmatu. Hodeiak behatu eta liburuak irakurri besterik ez zuela egin: «Niri 'Hierroko jakintsua' deitzen ditate, baina ni ezjakin galanta naiz! Orain hiltzeko zorian nago, eta hala ere, jendea etengabe gogaitzen dut galderak eginez, beti pixka bat gehiago jakiteko grina daukat. Ez nintzen ia eskolara joan, baina irakurtzen ikasi nuen. Askok gustatu izan zait beti. On Kixote batez ere. Eta his-



Goiko argazkian, Tadeo Casañez, lainoak «jetzen» asmatu zuen gizona. Beheko argazkian, berriz, garoe zuhaitzaren adar bat. Lainoa bertan kondentsatzen da eta ur tantak askatzen ditu.
Isidoro SANCHEZ



toria liburuak. Nik banekien binbatxeek lainoari ura ateratzen ziotela».

Lehen konkistatzaile europarek eman zuten fenomeno horren berri, Bethencourt eta La Salle normandiarrek, eta askok ez zuten serio hartu. XV. mendearen hasieran, Ezeroko irlan (gaurko Hierron) binbatxe aborigenek gurtzen zuten zuhaitz bitxia deskribatu zuten: «Arratsaldero, zuhaitz horren gainean hodei zuri bat kokatzen da, hostoetatik behera ura isurtzen duena, eta biztanle guztiek eta ganaduak edateko nahikoa ematen du». Ehun urte geroago, gaztelarren kronikak ere «ura ematen duen zuhaitz miragarria» aipatzen zuten. Bertakoek “garoe” deitzen zioten, eta bere oinarrian biltegiak zulatzen zituzten ura jasotzeko. Baina Hierro mundu ezaguneko irlarik urru-

nena zen, lurralde ia mitologikoa, eta zuhaitz miragarriaren istorio hark deskubritzen ari ziren mundu berrietako beste fantasia bat zirudien: asmaketa hutsa, Feijoo bezalako idazle arrazionalistentzat.

Ez zen magia, ez zen kondaira. Fisika zen, erraza eta ederra: alisio haize hezeak Hierroko iparraldea jotzen du, hezetasuna

«Gau batez esnatu egin nintzen, etxola barruan tantak erortzen zirelako. Lainoa zen, txilarretan kondentsatu eta tantaka ari zena», gogoratzen du Casañesek

Alisio haize hezeak Hierroko iparraldea jotzen du, hezetasuna mendian gora igotzen da eta hodei trinkoak pilatzen joaten dira. Garoe arbola leku egokian hazten da, gainera

Garoe zuhaitzetatik gertu, Ventejis izeneko tontortxoan, sei errektangulu berde ageri dira, lau metroko altuera dutenak. Harrapagailu bakoitzarekin eguneko 1.350 litro ur jasotzen dituzte.
Ander IZAGIRRE

mendian gora igotzen da eta hodei trinkoak pilatzen doaz. Garoe arbola leku egokian hazten da: mila metroko altueran, Tigulateko sakanaren goiko aldean, kostatik mendira lainoa bideratzen duen troka estuaren amaieran. Enbor liraineko ezki bat da, adaburu zabalekoa, lurruna harrapatzeko ezin aproposagoa: lainoa adarretan kondentsatzen da eta tantak askatzen ditu. Zuhaitza blai dago beti, goroldioak estalita, lur heze, bigun eta usaintsuan landatuta. Oinarrian binbatxeek zulatutako uraskak ikus daitezke, hiru edo lau metroko sakonerakoak, zuhaitz miragarriaren ura jasotzen jarraitzen dutenak.

Garoe famatua haizete batek bota zuen 1610ean. Egungo ezkia leku berean landatu zuten, 1949an, Tadeok txilarrekin egin-dako esperimentuaren ondoren.

Eta Hierron beste hainbat laino-harrapatzaile ere izan ziren ondorengo urteetan, lanbroaren bideak behatu, zuhaitz egokiak hautatu eta haien oinarrian ur biltegiak zulatzen zituztenak. Juan Bartolo artzainak sabina batetik lortzen zuen artaldearentzako ura; Zosimo Hernandez basozainak milaka litro biltzen zituen beste sabina batetik, lau urtetik behin irla alderik alde zeharkatzen duten milaka erromesei edaten emateko.

EGARRIA, ONDORIO POLITIKOA

Hierroko biztanleak artzain baten edo basozain baten asmenaren baitan zeuden, egarri-rik ez pasatzeko. Eta ez zuen zertan horrela izan behar. Egarrria ondorio politikoa zen, gizartearen antolaketa jakin baten ondorio, Carlos Santiago Martin geografoak dioenez.

Carlos Santiago Martin geografoak dio egarria ondorio politikoa izan zela: «Lurjabe handiek ez zuten inoiz teknologia hidraulikoetan inbertsiorik egin nahi izan»

Mende erdi bat geroago, Hierron gai dira lainoetatik milaka litro ur jasotzeko, asmaketa simple batekin. 2014an hasi ziren ur hori botilaratzen eta saltzen, Alisios izenarekin

Irlaren Erdiko aldean eta goiko aldean, Iruñean edo Gasteizen bezainbeste euri botatzen du. Baina Hierro oso lurralde gaztea da: itsasotik azaleratu berri diren harkaitz bolkanikoak, trinkotu gabeko lurra da nagusi, eta ura irla azpira iragazten da zirrikituetatik. Ez dago errekarik, ez dago lakurik, baina nahikoa litzateke putzuak zulatzea akuiferoetatik ura erruz ateratzeko. Martinek dio Hierroko lurjabe handiek ez zutela inoiz teknologia hidraulikoetan inbertsiorik egin nahi izan, eta ura lortzeko lan publikoei eragozpenak jarri zizkietela beti. Lurjabeek kontrolatzen zituzten putzu urriak nahikoak zitzaizkien euren ganaduei edaten emateko, soroak ureztatzeko, eta, batzuetan, nekazari pobreei ere saltzeko. “Uraren jabegoa botere-tresna indartsua da”, idatzi zuen Martinek. 1970eko hamarkadan, zenbait lurjabeek platanoen ekoizpena handitu eta esportatzen hasi nahi izan zutenean, lehendabiziko putzu handi eta sakonak zulatu zituzten. Ordura arte, Hierro uharteko biztanleek aspaldiko metodoak besterik ez zeuzkaten ura pilatzeko: enbor handien zuloetan, mendiko urasketan, etxeko patioetan. Eta urte lehor bat iristen zenean, ai!

«Timijiraqueko iturriraino jaitsi behar genuen, txanbilarekin. Itsasertzean dago iturria. Jaitsi, txanbila bete eta gora berri. Goiz osoa behar genuen horretarako», dio emakume zahar batek Casa Goyo tabernan, Tadeoren etxearen alboan, itsasoa baino mila metro gorago, iturria baino mila metro gorago.

LAINO-UR BOTILARATUA

Mende erdi bat geroago, Hierron gai dira lainoetatik milaka litro ur jasotzeko, asmaketa simple batekin. Garoe zuhaitzetik oso gertu, Ventejis izeneko ton-tortxoan, sei errektangulu berde ageri dira, dominoko sei fitxa balira bezala, lau metroko altuera dutenak: aluminiozko egiturak, sareetan bilduta. Theo Hernando ingeniari tenerifetarrak asmatu zituen, txiletarrek basamortuan lainoa harrapatzeko zabaltzen dituzten sareetan oi-

narrituta. Hernandok hiru dimentsioko modelo hau garatu zuen, aurrerapen nabarmen batekin: haize bortitzagoak jasaten dituztenez, ur gehiago biltzen dute.

«Zenbat eta azkarrago pasa, orduan eta tanta gehiago uzten ditu lainoak sarean», dio Hernandok. «Lehen berehala jaso behar genituen harrapagailuak –jarraitu du–, haizeak bota ez zitzaizkion, baina orain alerta larri dagoenean ere, orduko 70 kilometroko haizeteekin ere, zutik mantentzen ditzaizkion. Horri esker, harrapagailu bakoitzarekin eguneko 140 litro ur jasotzetik 1.350 litro ur jasotzera pasatu gara».

Ventejiseko sei harrapagailuetako tantak biltze handi batean pilatzen dira, suteen aurka erabilgarri egon daitezkeen. Agua de Niebla enpresak beste 27 harrapagailu jarri zituen Kanaria Handian, ur edangarria ekoizteko. 2014an hasi ziren ur hori botilaratzen eta saltzen, Alisios izenarekin. «Oso ur garbia da,

hodeietatik jasotzen dugu lurra ukitu baino lehen. Mineral gutxi dauzka, beraz. Tea edo kafea prestatzeko oso egokia da, jatorrizko zapoari ez diolako ezer gehitzen. Eta frogak egiten ari gara, laino-urarekin garagardoa ere ekoizteko, ginebra, whiskia, vodka...».

Kanaria uharteetan jasotzen dute laino-ura, baina Gilek dio oso erraza litzatekeela “baratze hidrikoak” leku askotan jartzea: «Egun bakar batean 35.000 litro ur edangarri jaso izan ditugu, 350 metro karratuko azalera eskas batean. Hori asko biderka daiteke. Oso teknologia erraza da, merkea, ez du energiarik behar, ez du hondakinik sortzen, ez ditu baliabide hidrikoak

agortzen. Baina azterketak behar ditugu, lainoen mapa bat, harrapagailu gehiago fabrikatzeko finantziarioa eta leku aproposetan ezartzeko baimeak... Baliabide oparoa daukagu, erraz ustiatzeko modua ezagutzen dugu, arreta pixka bat egin behar digute, besterik ez».

Hernando ere laster hasiko da botilako ura saltzen, Garoe izenarekin, binbatheen zuhaitz sakratuaren omenez. Nik ez nuen ezer asmatu, dio Hernandok, natura behatu eta antzinakoek egiten zutena errepikatu eta garatu besterik ez: haizea, lainoa eta oztopo bat tantak kondentsa daitezkeen.

«Nik ez nuen ezer asmatu», dio Tadeok, sofán tenteago jarrita, eskuak gora zabalduta. «Milioiak xahutzen dituzte ura alde batetik bestera eramateko, eta mendietan laino-ura galtzen ari da bitartean, guganaino erraz ekar daitezkeen ura! Mendian lainoa amorratzen dator. Betileek ere ura sortzen dute, lainoak jotzen dituenean. Jaso besterik ez dago».

Ventejiseko sei harrapagailuetako tantak biltze handi batean biltzen dira, suteen aurka erabilgarri egon daitezkeen.
Ander IZAGIRRE



REYHANLIKO SIRIARRAK

«Ez ditugu 3.000 milioiak nahi.
Errefuxiatuek alde egin dezatela nahi dugu»

 **JENDARTEA** / Miguel Fernández Ibáñez | Reyhanli

Mugako hiri honetako biztanleek siriarrrekiko pazientzia galdu dute eta, ohiko adeitasuna bertan behera utzita, errefuxiatuek Reyhanlitik alde egin dezatela nahi dute. Horregatik, siriarrak Anatolian mantentzeko asmoz AKP alderdiak eta Europar Batasunak sinatu duten akordioaren aurka agertu dira, 3.000 milioi euroren truke bada ere.

Siriarrak errefuxiatuak goizeko lehenengo ordutik bildu dira 2013ko maiatzaren 11ko atentatuan hildakoak gogoratzen dituen biribilgunean. Eraikuntzan edo nekazaritzan beren egoera dramatikoari irtenbidea eman nahian ari diren jorنالeroak dira. Eguerdian, hogein inguruk hor diraute, 50 pertsona baino gehiago hil ziren tokiaren inguruan ibiltzen. Bi lehergailuk eztanda egin zuten bertan, Reyhanliko erdialdean, Hatay eskualdean, Cilvegözü izeneko mugako pasabidetik hamar kilometrora kokatutako hirian.

Ondoko lurraldeetan bizi diren turkiarrek bost urtez ikusi dute gerrak eragindako iheslarien etorrera eta beso zabalik hartu dituzte. Baina orain beldur dira; inork nahi ez dituen arrotzez nekatuta –3.000 milioi euroko prezioa duten arrotzak–. «Ez ditugu 3.000 milioiak nahi, errefuxiatuek alde egin dezatela nahi dugu», dio hiriko erdialdean janari denda baten jabea den Ömer Yumusakek.

Justizia eta Garapena Alderdiak (AKP) zuzentzen duen Gobernuak eta Europar Batasunak mugako kontrolak indartzeko eta Anatolian bizi diren bi milioi errefuxiatu siriarren kostuari aurre egiteko hitzarmen ekonomikoa adostu dute. 3.000 milioi euroren truke, Estatu turkiarrak legez kanpoko etorkinen ilararen iturria ixteko konpromisoa hartu du. Joan den udan iheslarien errenkada hauek agerian utzi zuten politika europarraren alde ilunena. Hitzarmena

adostu bezain pronto, Greziara iristen saiatzen ari ziren 1.000 siriarrak gelditu zituzten Anatoliako mendebaldean, amets europarraren bila ehunka txalupa abiatzen diren tokian.

Gainera, Gobernuaren aldeko egunkariak nabarmendu zutenenez, 2016ko udazkenean «Schengen eremuan» turkiarrentzat bisak liberalizatzea onartuko da hitzarmenaren ondorioz. AKP barneko politikan erabili duen hitzarmenaren beste ordainketa bat da.

EUROPAREN LEZIOA?

Baina neurri hori bost axola Ömerri. «Denda honetan 11 urte nuenetik daramat lanean. Ez dut besterik ezagutu eta neurri horiek errefuxiatuekin bizi ez diren gutxi batzuen mesederako izango dira», adierazi du, eta EBk hartzen dituen errefuxiatu kopuru txikiarekin suminduta agertu da: «Eta moral lezioa eman nahi digute? Eta gero musulmanak gara gaiztoak?».

Turkia eta Siriaren arteko mugan egoera duela bi urtetik useltzen ari da. Orain turkiarrak konturatu dira gerra ez dela Gobernuak aurreratu zuen bezain azkar bukatuko eta bi komunitateen arteko gatazkak ez direla hasieran bezain noizbehinkakoak. Urfa, Gaziantep eta Hatay bezalako eskualdeak gainezka daude. Beren biztanleek diotenez, turkiar adeitasuna bukatu da, eta Gobernu islamiarraren erabakiak, Europarekiko mugakixten, bere biztanleen aurka doaz. «Diruaren eta boterearen truke egiten dute dena, baina ez dute inoiz guregan pentsatzen»,

azaldu du izena eman nahi ez duen AKPre jarraitzaile batek.


Hatay Anatolian dauden eskualde mestizoenetarikoa da. Eskualde osoan jendeak arabieraz zuzen hitz egiten du, beraien historiaren eta merkataritzako tradizioaren herentzia. 1939an, Hatayko biztanleak Sirian zegoen aginte frantziarra utzi eta Turkiako Errepublikan sartu ziren, erreferendumean hala bozkatu ondoren. Mendebaldean gehiengoa alauia da eta Baxar al-Assad Siriako presidentearen alde dago. Samandag bezalako hirietan kemalismoa edo suniak ez diren ezkerreko beste aukerak dira boto gehien jasotzen duten alderdiak. Reyhanlin, berriz, AKP bezalako alderdi kontserbadore suniek menperatzen dute hauteskunde panorama.

HERRIALDEA KOLOREA GALTZEN

Mende batez Siriari lotuta egon den inguru honetako ekonomia kaltetzen ari da gerra. «Hauxe da gatazka gogorren pairatzen ari den turkiar herrialdea. Siriaren bidez Ekialde Ertainarekin negozioak egiteko gunea zen. Orain muga itxita dago negozio txikientzat eta batzuek dena galdu dute», onartu du Hasan Turunçek, Askatasuna eta Elkartasuna Alderdiko kideak (ÖDP). Talde ezkertiar hau aspaldian izan zen garrantzitsua herrialde horretan, baina gaur egun oso txikia bihurtu da.

Turunçek azaldu duenez, herrialde koloretsu honen gainean laino beltzak zabaltzen ari dira gerraren eraginez. «Orain biltegiek armak dituzte gure barazki preziatuen ordez; jendea kalera

Ezkerrean, errefuxiatu siriarrak lanaren zain, 2013ko maiatzeko atentatuan hildakoak omentzen dituen plazan. Behean, Hasan, Reyhanlin, Siriako mugatik hamar kilometrora dagoen hirian bizi den erretiratua. Hasan Turç ÖDP alderdiko ordezkaria Hatayn.
Miguel FERNÁNDEZ IBÁÑEZ





gauetz ateratzeko beldur da eta ez dago lanik. Gure izaera galtzen ari gara», ohartarazi du. Antzeko hitzak ditu Ömerrek ere: «Gerra baino lehen egoera oso ona zen. Denontzako lana zegoen. Orain siriarrak diru gutxiagoren truke egiten dute lan eta enpresariak errefuxiatu bat nahiago dute, merkeago ateratzen zaielako. Gainera, azken urtean, lapurtzen hasi dira, gose direlako, ez dute zergarik ordaintzen eta kontrabandoa da beren bizimodua», gaitzetsi du bere dendan.

Elkarrizketaren erdian, gazte siriarrak sartu da. Kontrabandoko kafea dakar; bi kutxa, eta bakoitzean, hamabi pakete. Arabieraz, prezioaz eztabaidatu dute. Ez dira akordio batera iritsi. Ömer bera, minutu bat lehenago kontrabandoaz kexu zena, mugaren bi aldeko legez kanpoko trafikoa suspertzen duen kateko maila baino ez da.

Kontrabandoa ez da gerraren ondorioa, beti egon da hor, mugako hiriak zeharkatzen Turkia-ko hiri handietara iristeko. Jendeak kale erdian saltzen du legez kanpoko tabakoa eta agintariak, jakinaren gainean, inoiz

ez dute ezer egin galarazteko. Gerrak ekarri duen ondorio argia produktuen garestitzea izan da: tabakoaren zein gasolioaren prezioa %25etik gora igo da.

GIZON ARMATUAK

Lana eta inflazioa Hatayko biztanleek duten arazoak dira orain, baina Ömer kezkatuago agertzen da segurtasun faltagatik. 2013an 50 pertsona baino gehiago hil zuen atentatua gertatu zen eta Reyhanlitik kilometro gutxira dagoen Atme hiri siriarra Estatu Islamikoaren (ISIS) esku dago. Jihadisten eta hirian lo egiten duten talde armatuen joan-etorriak bere abegitasun handiagatik ezaguna zen herri turkiarra mesfidati bihurtzen ari dira. «Hatayn ez dugu bakarrrik errefuxiatuen arazoa jasaten, gerrako gripeak ukitu gaitu. AKP talde armatuak babestu ditu eta herria hortik guztitik urundu egin nahi du, Sirian jendea erail ondoren herri honetara etor daitezkeelako», adierazi du Turunçek. Turkia eta Siriaren arteko muga porotsua, 900 kilometro baino gehiagoko luzera duena, Barack Obamak eta Recep Tayyip Erdogan presi-

dente turkiarrak Parisko goi bileran eztabaidatu zuten arazoe-tako bat izan zen. Etxe Zuriak presidente turkiarrari muga ixteko eskatu dio jihadistien joan-etorria gelditzeko. Neurri horrek joan-etorri horretan arazo nagusia ikusten duten turkiarrak poztuko lituzke. Siriarrak erdian geratuko lirateke, kontrabandoa, bizirauteko duten aukera gutxietako bat, galduz. Turunç, alderdi ezkertiarra ordezkatzeko duena, ez dago gerratik ihes egiten dutenak hartzearen kontra, baina «bai eten-gabe joaten eta etortzen ari direnak. Arazoa ez dira errefuxiatuak, Estatua eta talde armatuak bizik. Gustatuko litzaizuke

«Siriarrak diru gutxiagoren truke egiten dute lan eta enpresariak errefuxiatu bat nahiago dute, merkeagoa da. Gainera, lapurretan eta kontrabandoan hasi dira, gose direlako»

«Arazoa ez dira errefuxiatuak, Estatua eta talde armatuak baizik», dio Turunçek. Iheslariak hartzearen kontra ez dago, baina beste iritzi bat du «etengabe joan-etorrian» ari direnei buruz

zure auzokidea pertsona armatua izatea?». Hasan bizitza osoan nekazaria izan da eta erretiraturatua dago. Argazkian agertzeko *takke*-a jantzi du, musulman kontserbadoreek erabiltzen duten txanoa. Zahar atsegin eta alai hau bere hiriaren aldaketaren lekukoa izan dela dio. Denek beren auzokideengandik dena ezagutzetik inorengan ez fidatzera pasatu dira. «Siriarrak kontrol gogorrik gabe joaten eta etortzen dira. Ez dakigu nortzuk diren, terroristak diren edo ez. Horregatik gerta daiteke edozein gauza», esan du. «Hiri osoak daki ISISen ideiak dituen jendea erakunde jihadistak sortzen saiatzen ari dela».

ETENGABEKO TENTSIOA

Reyhanli hiri kontserbadorea da eta anatoliar askorentzat ISISen gunea da Siriako muga. Bertako emakume gehienek belo turkiarra erabiltzen dute –ilea agerian ez uzteko buruko zinta–, baina orain *txadorra* edo *nikaba* hedatu dira. «Lehen bazeuden erabat estaltzen ziren emakumeak, baina orain askoz gehiago dira», azaldu du Hasanek. Erretiratu honek azpimarratu duenez, «arazo asko beste pentsaera duen jendearengandik dator, gero eta gehiago dira eta beren ghettoak sortzen dituzte». «Etengabeko tentsioan bizi gara. Ez dakigu noiz eror daitekeen misil bat edo noiz jarriko diguten beste bonba bat», gaineratu du Ömerrek.

Hasanek bezala, Ömerrek badaki errefuxiatuek beren herri-ira itzuli nahi dutela. Baina gerra oso egoera txarrean dago Hatayko muga, eta ez du uzten bi komunitateen nahia betetzen: siriarrak beren herri suntsitura itzuli nahi dute, eta turkiarrak, alde egin dezatela. Ömerren hitzetan, «gutziz kontrakoa gertatzen ari da»: «Gero eta errefuxiatu gehiago datoz Hatayra, orain Errusiak bonbardatzen dituen turkmenak bezala. Abegitsuak gara, mundu guztiak daki hori, baina arrotza datorrenean egun batzuk igaro ostean badoa. Beraiek denbora luzeegia geratu dira eta gure pazientzia agortu egin da».



Ander Gortazar - @derzu_uzala
Arkitektoa

«Flipada» bat

Sin Permiso» aldizkarian plazaratu du ideia David Bravo arkitektoak: Bartzelonako «ronda» edo ingurabideak etxebizitzaz estaltzea. Argudiatzen du ingurabide hauek, garai bateko harresiek bezala, ito egiten dutela hiria; Bartzelonak etxebizitza publiko gehiago eta auto gutxiago behar dituela iritzita, ingurabideak etxebizitza promozio txikiz estaltzea proposatzen du Bravok, erdiko bi karrilak tranbiamari eskainiz. Hiria izateko eskubidea eta etxebizitza eskubidea bermatuko dituen hirigintza-proposamena, arkitektoaren hitzetan.

Etxe honetako zuzendariari interesgarria iruditu zitzaion proposamena, baina zalantza egiten zuen ez ote zen hura «flipada bat». Flipada izan ala ez, ez da proposamen isolatua, hainbat lekutan ari baitira hiri-autobideen papera ezbaian jartzen. AEBetan, non hiri-autobideak guztiz zartatu zuen eredu europarretan oinarritutako hiri dentsoa, egindakoa desegiten (saia-tzen) ari dira orain: Portland, Milwaukee, Detroit, Seattle, Dallas... Hiri-autobide batzuk eraitsi dituzte ala eraistear daude, alboetara gelditu ziren auzoak berriro lotuz parkeen, etxebizitzaren, lantokien bidez; oinez, bizikletaz, garraio publikoz.

Imajina dezagun, beraz, flipada bat. Imajina dezagun Donostiako lehenengo ingurabidea eraisteko erabakia hartzen dela, pixkanaka, fasez fase. 70eko hamarkadan hiria kanpoaldetik inguratzen zuen barianteak, erdialdeko trafikoa arinduz, baina,

aldi berean, “eskari induzitua” esaten zaiona sortuz: errepide berriek errepide zaharretako autoak erakartzeaz gain, konexio berriak ahalbideratu eta auto-erabiltzaile berriak sortzen dituzte. Nola ulertu, bestela, Donostiako bigarren ingurabidea.


Egun, bariante zaharrak ez du jada Donostia «inguratzen», zatitu egiten du lubaki baten antzera. Eta, hain zuzen ere, bigarren ingurabidearen existentziak berak kuestionatu egiten du lehenengoa: Donostia inguratu badaiteke bigarren saihesbidetik, zein da lehenengoaren funtzioa, Donostialdeko barne mugimenduak autoz eroso egitea baino? Zein zeregin du barianteak, haren ibilbide bera egiten duen trenbidearekin lehiatzea baino? Ondorioztatu ahal liteke lehen ingurabidearen desagertzea eta Euskotrenen linea nagusiaren indartzea txanpon beraren bi aldeak direla?

Imajina dezagun, bada, 70eko hamarkadan eraikitako ingurabide hori gabeko Donostia bat, eta imajina dezagun eskari hori bereganatuko duen –eta ondorioz frekuentzia lehiakorra izango duen– Euskotren zerbitzu dotore bat. Imajina dezagun horrek libre utziko lukeen 8 kilometro luze eta 100 metro zabaleko espazio lineala, hiriaren beharrak barrutik –eta ez kanporantz, progresoak esaten omen duen moduan– aseko dituenak.

Imajina dezagun lubakiak zatitu zituen auzoak elkar lotu daitezkeela berriro, eta kalitatezko ingurune bat izateko eskubidea ematen zaiela orain arte oztopo fisiko eta sonoroak jasan dituzten herritarrei. Erreparazio historiko moduko bat, kasik. Imajina dezagun, halaber, etxebizitza eta lantoki sustapen mistoak garatu daitezkeela garraio publiko bidezko lotura onena duten puntuetan, eta hiriak guztiz zokoratu duen lehen sektoreari leku egin dakiokela berriro. Hiri trinkoa, kohesio soziala, mugikortasun jasagarria, lehen sektorea, aire garbia. Espazioa sobera dago, espazioa nori kendu ongi erabakiz gero.

Agian bada, ez dakit, flipada bat. Baina zer zen, flipada bat ez baldin bazen, Pasaia kanpo portuaren proiektua? Zer dira, flipada galantak ez baldin badira, abiadura handiko trena, Lemoizko zentrala, Lezo-Gaintxurizketako plataforma logistikoa, Super Sur, BEC, 2x2 autobidea eta “estrategiko” etiketa esleitzen zaien –dieten– beste hainbat flipada?

Ongietorriak flipadak, beraz, asmatu nahi dugun etorkizunari forma ematen laguntzen duten heinean. Haiek egiten dute, egin dezagun guk ere. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Podemos, «Troiaiko zaldia» edo aukera berriak?

Podemos sekulako indarrarekin sartu da euskal mapa politikoan. Lehen indarra Hego Euskal Herrian, lehen indarra Araban eta Gipuzkoan, eta bigarren indarra Nafarroan eta Bizkaian. EAEn ere lehen indarra izan da, eta hilabete gutxi barru Legebiltzarrerako hauteskundeak izango direla gogoratu behar da. Hauteskunde orokorrak izateak –hau da, Estatuako joerak izugarri markatzeak– eragin handia izan du emaitza horietan, baina sinplekeria litzateke pentsatzea ondorengo hauteskundeetan Podemos azukre koxkor bat bezala urtuko denik. Apalduko den arren, geratzeko etorri den fenomeno dela dirudi.

Fenomeno hori aztertzekean, hauteskundeetan oso kaltetuta atera den ezkerreko independentismoak bi modutan ikusi du, han eta hemen irakurri eta entzun ahal izan ditugun iruzkinak islatzen dutenez. Batzuen ustez, Podemos “Troiaiko zaldia” izan daiteke, euskal herritarrak asimilaziora eman ditzakeen eta burujabetza prozesuari muga jarri diezaiokeen Troiaiko zaldia, alegia. Independentismoaren galga, hain zuzen. Beste batzuen ustez, ordea, erabakitze eskubidearen oinarria izugarri zabaldu da, eta horrek aukera politiko berriak eskaintzen ditu.

Bi posizio horiek modu argian agertu ziren joan den igandean Info7 irratiak eskainitako hauteskunde saioan, kanpotik etorritako bi ahotsen bitartez. Galiziar soberanista batek Podemos kasik Estatu espainolaren operazio-tzat jo zuen. Segidan, hautatu berria zen ERCko diputatu batek hango prozesua indartuta irteten dela esan zuen, eta Podemosen –En Comú Podem, hobeto esan– boza erabakitze eskubidearen eremuan kokatu zuen gardenki.

Euskal Herrira bueltatuta, esan daiteke bigarren balorazioa –erabakitze eskubidearen oinarria zabaldu egin dela, nahi diren salbuespen eta ñabardura guztiekin– objektiboa dela, eta lehena –Troiaiko zaldia dela– subjektiboa. Horrek ez du esan nahi azken hori zuzena ez denik, nork daki, baina gehiago dagokio balorazio politikoari datuen azterketari baino.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDEKOEN INDARRA

Zer diote, bada, datuek? 2011n erabakitze eskubidea –teorian bederen– aldarrikatzen zuten indarrek (EAJ, Geroa Bai eta Amaiur) botoen %46 biltzen zituzten. IU-IEk botoen %4,10 zituen, baina nekez kokatu ahal zen erabakitze eskubidearen eremu horretan. Oraingoan, eskubide horren aldeko indarrek –egia bada ere EAJ bere jarrera gero eta gehiago epeltzen ari dela–, Podemos gehituta, botoen %60,3 lortu dituzte. Ñabardura guztiekin, berriro ere.

Orduan indar abertzaleak –teorian hori ere– ziren erabakitze eskubidea defendatzen zuten bakarrak. Orain, Estatu mailako proiektua duen indar bat ere gehitu da.

Horrek bi ondorio ditu: бага, herri mugimenduak azkenaldian bilatu duen zeharkako izaera lortu ahalko luke erabakitze eskubidearen eskabideak; biga, EAJren ezinbestekotasuna apalduko litzateke, eredu progresistago baten mesedetan. Egia bada ere EAJri horrek denak eragin diezaiokeen beldurrak oraindik are eta uzkurrago bilaka dezakeela ez aurrera ez atzera dagoen alderdia. Nolanahi ere, urteotan egiaztatu da EAJ ez dela prest izan burujabetza prozesu bati ekiteko. Horixe da egungo errealitatea.

BERE BURUARI BEGIRATU ETA BERE BURUA ERALDATU

Ezkerreko independentismoari eskaintza egitea dagokio, egitura juridiko-politikoaren eztabaida eta erabakitze eskubidea berriro ere erdigune politikoan jar daitekeela eta aukera politikoak aprobetxatu egin behar direlako. Alde batetik, proiektu estrategiko erakargarri bat aurkeztu beharko luke. Izan ere, Estatuan ikusitakoaren arabera, bertatik ez da ezer onik etorriko. Erabat esanguratsua da Podemosek estatutik gabeko nazioetan arrakasta izan izana eta askoz ere gutxiago beste leketan. Beste alde batek, gaur egun independentista ez diren baina behinik behin erabakitze eskubidea onartzen duen indar bati botoa eman dioten milaka eta milaka lagun horiei (Troiaiko zaldia kanpoko soldaduz zegoen beteta, baina Podemosi bertako jendeak eman dio boza) helburu apalagoak eskaintzeko gai izan behar du independentismoak, adibidez, gaur egungo egitura juridiko-politikoaren aldaketarako proposamenetan. Burujabetzaren bidean urratsak liratekeen eta sektore horien aldeotasuna lortuko luketen proposamenetan. Eskuratuko balira, urratsa; Estatuak galaraziko balituzke, urratsa, sektore horiek, inposizioaren aurrean, independentismorantz dekantatzeko aukera zabalduko bailitzateke.

Ariketa hori guztia egiteko ez dago unerik onenean ezkerreko independentismoa, bere buruari begiratu behar baitio hauteskundeetan izandako porrota dela-eta. Bere buruari begiratu eta bera burua eraldatu. Arazoak ez dira, edonola, gaurkoak. Ezker abertzalearen estrategiaren aldaketa bere osotasunean ulertu ez izana eta Bilduk suposatutako freskotasunari gehiago tira ez izana –aktibatu zen jendea eta moduei bide gehiago eman ez eta betikorra bueltatu– egon daiteke egungo egoeraren iturburuan. Beste modu batera esanda: garagardo bati apar asko ateratzen zaionean (Bilduk izan zuen) bere senera utziz gero, aparra jaitsi baina zerbeza igo egiten da, eta, hala, edateko moduko basokada ederra geratzen da. Berehala aparra kentzen bada, aldiz, garagardoak ez du gora egiten.

Seguru asko, EH Bilduk detektatuta zituen jada arazoak, emaitzok horiei sakonki aurre egiteko premia baino ez dute ekarri. •

EGUBERRI OSPAKIZUNAK

Sorterritik ekarritako usadioei Euskal Herriko ahotsa eta itxura ematen

 **GIZARTEA** / Maider Eizmendi

Hautzaroko Eguberri ospakizunek arrasto luzea uzten dute. Horregatik, sorterritik urrun daudenek, jatorrizko Eguberri sasoiko usadioak erabat galdu gabe, moldatu egiten dituzte gehiago edo gutxiago. Familia eta jan eta edaneko bilkurak izaten dira bai han bai hemen, ia salbuespenik gabe, ospakizunon muina.

Familia eta jan eta edana. Han, hemen eta hurrengoan horiek dira Eguberri sasoiko osagairik garrantzitsuenak. Hala aitortu dute Taniak, Maxik, Mari Josek, Mohamedek, Guyflorentek, Corneliok eta Jubak. Mahaiaren bueltan topatu ditugu Villabonan. Banaiz Bagara elkar-teak antolatutako saioetan parte hartzen dute eta astean ordu eta erdiz euskaraz mintzatzen dira

elkarrekin, elkarri lagunduaz. Gabonetako oporren atarian askaria antolatu dute. Koloretsu dago mahai gaina, han eta hemengo jakiez beteta.

Leihotik sartzen da kalean zintzilikatutako apaingarrien dirdira eta haren aitzakian Eguberrien inguruan aritu gara batutakoekin, nola ospatzen zituzten euren jatorriko herrietan eta nola ospatzen dituzten hemen.

Tania (Nikaragua) abiatu da hizketaldiarekin. Irribarretsu

Astean behin batzen dira Villabonan euskaraz aritzeko. Eguberrietako oporren aurretik mahaiaren bueltan eta jaki goxoz lagunduta hitz egin dute. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

mintzatzen da, baina bere hitzei nostalgia darie. «Familia da Nikaraguako Eguberri jaien giltza; ahal dugun guztiak elkartzen saiatzen gara, bidaia luzeak egin behar baditugu ere».

Hemen ere ahal duten guztiak elkartzen saiatzen dira, noski, eta haurrak zirela jaten zituztenak jaten ere ahalegintzen dira, «baina zenbait kasutan ez dugu behar dugun osagairik». Nikaraguan Gabon garaian tradizio handiko jakia da, esaterako, *nacatamales* izenekoa.

Eguberri jaietan Euskal Herriko mahaietan batzen diren jakiek harritzen dute. «Guk han ez dugu ez arkumerik ez arrairik jaten Gabonetan; eta hona etorri nintzenean, atentzioa deitu zidana jai hauetan etxe askotan mariskoa edota zopa jateko ohitura da; halakorik ez dut sekula nire herrialdean ikusi», kontatu du. Nikaraguakoa den Mari Josek buruarekin baietz egiten du. «Nikaraguan jaten diren zopak desberdinak dira, egia esan, baina Eguberri jaietan ez da inoiz

ere zoparik menuan sartzen», zehaztu du.

Nikaraguan jaiotako bi emakumezkoek jai hauetan jaten diren jakien zerrenda luzea osatu dute eta haiek zehazteko baliatzen duten arrazoia azaldu dute, mahaiaren bueltan eseritako guztiek adi-adi entzuten dieten bitartean: «Gabon gauean oilaskoa jaten dugu, atzeraka aztarrika egiten duen animalia delako; horrela, urtean zehar izan ditugun pasadizo txarrak atzean uzten ditugu. Urtezahar gauean berri, txerrikia jaten dugu; txerriak muturraz aurreraka egiten du aztarrika eta modu horretan urte berriak dakartzan gauza on guztiak gurekin eramaten ditugu».

Bestelako tradizio eta bitxikiak ere badituzte. Esaterako, urte berria sartzearekin batera, maletak hartu eta kalean zehar ibiltzekoa: «Horrekin nolabait bidaiatzeko asmoa erakusten duzu; nik egin nuen eta urte hartan bertan hona etorri nintzen! Ez dakit eragina izan zuen



edo ez –dio barrez– baina nik bi-daiatu dut». Gainerakoei irudi hori deskribatzen saiatzen dira nikaraguar emakume biak: «Atearen ondoan kokatuta izaten dira maletak Urtezahar gauean eta urte berrian sartzearekin batera irteten da kalera jendea haiek arrastaka dituela».

EGUBERRIAK 30 GRADUTAN

Kongon jaioa da Guyflorent, eta, tradizio oso desberdinak izanagatik, Eguberri ospakizunak kalean bizitzerako orduan bat egiten du Tania eta Mari Joserekin. «Egia da gure jatorrizko herrialdeetan tenperaturak lagundu egiten duela. Izan ere, 30 gradutik gora ditugula ospatzen ditugu jaiok», aitortu du. Horregatik, hain justu, Euskal Herrikanpo toki askotan opariak ekartzen dituen Bizarzuriren jantziak ere asko aldatzen dira batetik bestera. «Gurean udako trajez janzen da!», diote barrez.

Gabon gaua, familian igarotzen da kasu guztietan: «Familia denetan egoten dira arazoak, baina Gabonetan ez; nahiz eta arazoak egon, haiek ahaztu egiten dira egunotan», aipatu du Guyflorentek. Urtezahar gauean egiten den ospakizun handiarenkin akordatzeko da batez ere. «Urte berrian sartzea gauza handia da eta jai handia egiten da hori ospatzeko, haur eta heldu irteten da kalera, kantatu eta dantzatzeko», oroitu du.

Mohamed aspalditik bizi da Euskal Herrian, Zizurkilan, eta aspaldian ezagutuak ditu Olenzero, kantu-eskea eta gainerako ohitura eta tradizioak ere, besteak beste, «etxeko haurren bitartez». Egun ez du alderik ikusten Gabonak ospatzeko duten moduan; «hemen ere etxe batetik bestera alde handiak» daudelako bere iritziz.

Haurretan bizitako Eguberriek badute halako indarra gure burmuinetan, eta, hori dela eta, guztiak saiatzen dira euren herrialdeetan izandako bizipenak gerturatzen. «Nik gehien faltan botatzen dudana musika da, Gabonak batez ere entzun egiten dira; Eguberri kantuak kantatzen ditugu, noski, baina gure herrialdean oso ohikoa da



Iratxe koordinatzaileak baserritar jantziak ekarri ditu eta bi aldiz pentsatu gabe jantzi dituzte unea gogoratu eta euren senide eta lagunei argazkia erakusteko. GAUR8

bestelako musikarekin dantzan egitea. Gabonak festa gisa bizi ditugu eta hemen ere hala saiatzen gara, baina, oro har, Eguberriak ez dira modu berean bizi-tzen», onartu du Tania.

Etxeak apaintzea ere maite dute asko. «Nikaraguan oso ohikoa da etxea apaingarri eta argiekin betetzea, hemen baino askoz gehiago. Lehiaketak ere egiten dira etxerik ederrenak saritzeko», gogoratu du. Hala, oso ohikoa da jendea auzokoen

etxeetan sartzea bertan kokatutako apaingarriak ikustera: «Ateak zabalik egoten dira beti».

JENDETZA ELKARTUTA

Corneliok kontatu du Errumaniaren ospakizunetarako herriko kultur etxean batzeko joera dutela, «familia handian», beraz: «Hiru eguneko jai egiten da: bertan jan, jolasak egin, abestu... egiten da», azaldu du. Euskal Herriarekin alderadura, alderik handiena jateko orduan nabari

duela dio Villabonako bizilagunak: «Han txerria hazi eta bestelako jakiak erein egiten dira Eguberri jaietara begira. Mahaira ateratzen den guztia prestatu egiten da; ez da erosi eta besterik gabe mahaiaren gainean jartzen; azken batean, janaria prestatzea bera jaiaren parte da guretzat», aipatu du, gaur egun ere «txerririk hazi ez», baina prestaketa horretan denbora asko pasatzen dutela aitortuta.

Ospakizunetan jendetza hori ez batzea da faltan gehien botatzen duena. «Hemen familiak batzen dira, bakoitza bere etxean, baina jai hauek ez dira herriarren artean ospatzen».

Jubak sorterrituen Marokoko Rif eskualdean, nahiz Euskal Herrian bertan, Eguberrietako tradizioak asko aldatu direla gogoratu du. Maxik ere hala dio, lehen erlijioarekin lotutako tradizio asko zirelako. Rifan aurten 2.956. urtean sartzea ospatuko dute etxe askotan, gure urtarilaren 11n, gainera. «Aspaldiko

tradizioan oinarritutako egutegia da gurea, seguru asko, denboran luzean mantenduko ez dena. Mendialdean bizi diren familiek, nireak bezala, mantentzen dute ohitura hau; ospakizunetan elkartu eta fruitu lehorrak jaten ditugu». Festa handia da eurentzat, euren Eguberri jaien «erdigune», eta, noski, sorterritik kanpo ospatzea oso zaila dena. Euskal Herrian astelehenez eta lanegunez egokituko bada ere, urtarilaren 11 egun berezia izango da zalantzarik gabe gaztearentzat.

Batera nahiz bestera ospatu Eguberri jaiok jaiotzen ikusi zituzten herrialdeetan, irrikaz entzuten dituzte Iratxeren ahotik Euskal Herriko ohitura eta xehetasunen inguruko hitzak, baita euskarazko Gabon kantuak abestu ere. Eurek ere moldatu dituzte ospakizunak azken urteotan, baina, aitortu dutenez, «haurra zarela bizi dituzun Eguberrietako usadioak ezin dira inoiz ere ahaztu».

«Ospakizunetan jendetza ez batzea da faltan gehien botatzen dudana. Hemen familiak batzen dira, bakoitza bere etxean, baina jaiak ez dira herriarren artean ospatzen»

«Gure jatorrizko herrialdeetan dugun tenperaturak jaiak kalean ospatzea laguntzen du. Gurera Bizarzuri bera ere udako jantziekin etortzen da!»



Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

JOHANNA LOPEZ ETA JUAN CASAS

KOLONBIA

«Kolonbian intentsitate handiz ospatzen dira Gabonak; Euskal Herrikoak hotzagoak dira»

Hamabost urte dira jada Johanna Lopez, Juan Casas eta euren familiak Kolonbia utzi eta Euskal Herrian lur hartu zuenetik. Ia beste hainbeste Gabon bizi izan dituzte, beraz, sorterritik kanpo; pertsona nahiko autorizatuak dira jada Euskal Herriko eta Kolonbiako Gabonen arteko ezberdintasunez hitz egiteko. Sei kideko familia osatzen dute; elkarrekin igaroko dituzte Gabonak.

Noiz iritsi zineten Euskal Herrira? 2000. urtean iritsi ginen Euskal Herrira; gaur hamabost urte, beraz. Bizitzaren beraren bilakaerak eraman gintuen Kolonbia utzi eta Euskal Herrirako bidea hartzera. Zarautzen egin genituen lehenengo bost urteak, Azpeitian hurrengo bostak, eta Zestoan azken

bostak. Gainera, taberna bat daukagu Zestoan duela zortzi urtetik.

Ahots autorizatua duzue, beraz, Kolonbiako eta Euskal Herriko Gabonez hitz egiteko.

Alde handia dago herrialde batean eta bestean Gabonak ospatzeko moduan. Kolonbian askoz ere gehiago bizi direla esan genezake, askoz ere intentsitate handiagoz bizi direla. Azaroan sartuz gero sumatzen da Gabon giroa han: irrati kate guztiak Gabon kantak jartzen hasten dira, Gabonekin zerikusia duen musika jartzen dute, etxe guztiak apaintzen dira –pobre zein aberats–... Gainera, nolabaiteko lehia ere sortzen da ea etxeak nork apaindu duen gehiago.

Gu Medellin hirikoak gara. Hiria zeharkatzen duen ibai bat dago, oso zabala dena, eta Udalak guztia apaintzen du; kilometro pila bat betetzen ditu apaingarritz. Zentzu horretan, Udalaren inplikazioa ere oso handia da.

Baduzue nolabaiteko tradizio berezirik Gabonetako ospakizunetan? Kolonbia oso herrialde katolikoa da. Hori hala, etxe guztietan “bederatzigarren gabonsaria” delakoa ospatzen da, hau da, Jesus haurra jaio baino bederatzi egun lehenago –abenduaeren 16tik 24ra bitarte– gauero familia guztiak elkartzen dira zuhaitzaren eta jaiotzaren bueltan erreztatu eta Gabon kantak abesteko.

Gabon gaueko eta Eguberrietako ospakizun guztiak, berriz, kalean egiten

dira. Auzoak ixten dira autorik igaro ez dadin, eta familia guztiak kalera ateratzen dira ospakizunetara. Jaiak 24an hasi eta 25ean jarraitzen du; inor ez da bere etxera joaten gaua igarotzera. Sua egiten da kalean, eta txerria hiltzen da ondoren. Musikak garrantzia handia hartzen du, eta pertsona helduek natillak egiten dituzte. Jan eta edan guztia familia eta lagunekin elkarbanatzen da.

Nola oroitzen dituzue Euskal Herrian igaro zenituzten lehenengo Gabonak?

Hemen ikusten duguna da oso Gabon hotzak direla: ez dago bolbora hotsik, irradian ez da Gabon kantarik entzuten... Giroa askoz ere hotzagoa da, nahiz eta tartean behin ikusten den Gabonekin zerikusia duen argiren bat edo beste.

Lehenengo aldiz etorri ginenean horrek harritu gintuen. Argi gutxi ikusten genuen kalean, etxeetan ere ez zen askorik antzematen; gureak, gainontzekoekin alderatuta, kristorena ematen zuen. Zarautzen igaro genituen lehenengo Gabonak oso tristeak izan ziren. Sorterria utzi berriak ginen eta ez geneukan lagunik bertan. Giroa ere oso hotza zen, eta horrek ez zuen batere laguntzen. Negar asko egin genuen. Kolonbian intentsitate handiz bizitzetik, familian eta jende askorekin batera, Zarautzen guk geuk bakarrik eta hoztasun horrekin ospatzera igaro ginen. Oso gogorra izan zen.

Zein esango zenukete dela bi herrialdeek Gabonak ospatzeko orduan duten ezberdintasun nagusia?

Alderaketa bat egitearren, esan daiteke Gabonak Kolonbian igarotzeko moduak futbol esatari argentinar batekin duela zerikusia, eta Euskal Herrian igarotzeak esatari euskaldun batekin. Hemengo Gabonekin ohitua dagoen bat Kolonbiara joango balitz... harrituta geratuko litzateke!

Urte berriari ongietorrikeri ere egingo diozuela pentsatzen dut.

Abenduak 31 gaueko ospakizunak are intentsuagoak dira. Pertsona batzuk maleta hutsak eskutan hartuta ateratzen dira kalera, gauza txarrak hor sartu eta urte berria ongi hasteko. Kafea ere mahai azpian sartzen da, uztar berria zortea izateko. Eta bolborak eta musikak indar handia hartzen dute: diru bilketa bat egiten da eta panpina bat bolboraz betetzen da, kanpaiak jotzen hastean lehertzen dena.

Aimar Etxeberria Korta

KHADIJA BOUTALEB

MAROKO

«Umeak, gainerako lagunekin, Olentzero abestera irtengo dira. Etxean, baina, ez dugu ezer ospatuko»



Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Berria da Khadija Boutaleb Euskal Herrian; urtebete pasatxo baino ez darama Zestoan. Bere senar Tahir eta hiru alabekin etorri zen: Somaya, Hafsa eta Rania. Aurrez, ordea, Valentzian egin zituen zazpiren bat urte; ezagutzen du, beraz, Gabonak ospatzeko modu mendebaldarra.

Zuen jatorriko herrialdean, nola ospatzen dira Gabonak?
Marokon ez dugu Gabon gaurik

ospatzen, baina urte berriari egiten diogu merezi duen ongietorria. Familian elkartu eta afaria egiten dugu, gauerdira arte itxaronez. Baina ez dugu oparirik eta egiten. Kontua da Marokon egutegi mendebaldarra erabiltzen dugula, Frantziaren menpe bizi izan ginelako urte luzetan zehar. Baina herrialde arabiar gehin-gehienek (Saudi Arabia, Egipto, Dubai...) euren egutegi propioa dute, guk ere erabiltzen duguna zenbaitetan.

Ospatu ez izanagatik, ordea, Marokoko giroan antzematen da Gabonak direla. Hiri nagusiak argiztatu egiten dira, eta Bizar Zurirena egiten duten pertsonak egoten dira kalean, haurrekin argazkiak ateratzeko, baina oparirik ez da egiten. Zoriontasunaren garaia da, familian elkartzekoak, baina opariek ez dute lekuri gure ospakizunetan.

Hemengo Gabonekin alderatuz, ze ezberdintasun azpimarratuko

zenituzke?

Asko gustatzen zait hemen Gabonak ospatzeko duzuen modua. Argi asko jartzen dira, eta umeak oso pozik ikusten ditut; horrek asko pozte nau ni ere. Urtezahar eguna soilik ospatuko dugu guk, ordea, etxean, Gabon gauean ez dugu ezer berezirik egingo. Hala ere, umeek gainerako lagunekin batera eskolan egiten diren ekintza guztietan hartuko dute parte. Olentzero etorri berri zaie eskolara, kalean abestera aterako dira... Etxera etorri eta Olentzeroren abestiak kantatzen dizkidate!

Nola azaldu diezu zuek ez duzuela Gabon gaurik ospatuko eta Olentzerok ez diela oparirik ekarriko?

Azkenaldian galdera asko egiten ari dira umeak, normala denez. Zuhaitza jarri behar dugula diote, opariak eskatzen hasi dira... Eta esaten diet: «Begira, maiteak, guk pozik gaudela ospatuko dugu, baina gu musulmanak gara eta hau ez da gure ospakizuna». Eta ulertzen dute. Beraz, gainerako umeekin ekintza guztietan hartuko dute parte, baina etxean ez dugu ezer ospatuko. Abestera irteten direnean gu ere kalera aterako gara ikustera. Aurreko urtean ez nuen aukerarik izan, eta gustura ikusiko nituzke. Gauza horiek guztiak pila bat gustatzen zaizkit: Valentzian bizi ginenean ere asko disfrutatzen nuen fallak erretzen zituztenean. Umeak oso pozik ikusten ditut, eta horrek pozten nau batez ere. Familia bertako ohituretan integratzea garrantzitsua dela iruditzen zait.

Ba al duzue antzeko tradiziozkoen jatorriko herrialdean?

Ezet esango nuke. Guk, adibidez, hil honetan gure profetaren jaiotza ospatuko dugu. Egutegi arabiarren baitako ospakizun bat da; 12an ospatuko dugu. Ospatzeko modua, ordea, oso ezberdina da: Jainkoaren omenezko errezoak egingo ditugu, argi berriaren iritsiera izan zela ospatuko dugu. Horretarako familiarekin elkartuko gara, pozik gaudela aldarrikatuz, baina oparirik gabe kasu honetan ere.

Urte berriari, ordea, bai egingo diogula ongietorria. Kuskusa prestatzen dugu ospakizun honetarako, egun berezia delako guretzat. Familia bazkarietarako eta oso aproposa da kuskusa, pertsona askok plater berdinetik jatea ahalbidetzen duelako.

Aimar Etxeberria Korta




Ainara
AZPIAZU
«AXPI»

iRRITZIA:

OPARO

HORI AL DA OLENTZEROK EKARRITAKOA?



BAI...
NAHI NUEN
GUZTI-GUZTIA

HARA! NIRI
ERE BAI



AXPI

Xuxurlatu zer eskatzen
dizun urte berriari.
Urte berri on!



GAUR8 



Onddoekin mikorrizatutako gaztainondoen landaketak ikertzen

Urteak dira jada Bionekazaritza, Arabako Frutazain eta Eraldatzaileen Elkartearekin (AFEE/ASSE) eta Euskal Herriko Hazien Sarearekin elkarlanean, nekazaritzarekin lotutako jarduera ezberdinak garatzen ari dela, bertan dauzkagun nekazaritzako baliabideak ahalik eta hobekien ustiatzeko asmoarekin. Helburu nagusia da laborantza sistema tradizionalak garatu eta sustatzea, nekazaritzako jarduera alternatibo edota gehigarri modura. Ez nolanahi, dibertsifikazioa baita nekazaritzan jarduten duten pertsonen errenta altxatzeko bidea.

Ia egunero heltzen zaizkigu frutazaintzari buruzko kontsulta puntualak. Norbanakoak, udalak eta bestelako era-

kundeak izaten dira galdetzaileak, eta askotan, kontsulton atzean laguntza eta aholkularitza eskari bat dago, landaketak egiteko asmoa daukatelako.

Frutagintza ekologikoa sustatzeko lan egiten duten elkarteek baliabide mugatuak badauzkate ere, indarrak ahalik eta hobekien erabiltzen saiatzen dira, eta jarduera, proiektu eta kolaborazio ezberdinekin lan egiten jarraitzen dute. Helburu nagusia argia da: frutagintza ekologikoa bertoko nekazaritzarentzat irtenbide errentagarri gisa garatzea. Mikorrizatutako gaztainondoen landaketa esperimentalek asko lagun dezakete horretan.

GAZTAINONDOA GURE MENDIETAN SUSTATZEA XEDE
Gaztainondoa tradizio handiko espezie enblematikoa da euskal lurraldean. Ez

nolanahi, mende askotan zehar gure herri ugartan elikaduraren oinarrieta-ko bat izan baita. Izan ere, gaztaina elikagai erabat osoa da, eta ezaugarri horrek bihurtzen zuen fruitu lehor hau oinarritzko elikagai urritasun sasoietan.

Zoritxarrez, aurrekaririk ez duen atzerakada bizi izan du gaztainondoak Euskal Herrian, eta, horren haritik, bueltarik ez duen baliabide genetikoaren galera gertatu da.


Egoera horren arrazoiak landa eremuak jendez hustu izanari egotzi behar zaizkio, baina baita lursailen kontzentrazioari, pinua, patata edota zerealak bezalako beste landaketa batzuk sartu izanari... eta, nola ez, *Phytophthora cinnamomi* (tinta) gaixotasun lazgarriak izandako eraginari.

Gaztainondoa baso ustiapen dibertsifikaturako espezie bezala (kalitatezko egurraren, gaztainen eta onddoen ekoizpenerako) gure lurraldean berriz ere landatzea oso jarduera interesgarria izan daiteke, bai ekoizpenari dagokionez bai ingurumenaren ikuspegitik ere. Gaztainondoaren aldeko apustu garbi batek gure mendietako askoren itxura aldatuko luke, aldi berean errendimendua emanez iturri ezberdinetatik (egurra, gaztainak, onddoak). Horrenbestez, lanpostuak sortzeko ere balioko luke, bertoko merkatuan estimazio handia duten kalitate handiko produktuez ari baikara.

ESPERIMENTAZIOA

2012. urtetik Arabako Frutazain eta Eraldatzaileen Elkarteak jarduera eta

NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



Frutagintza ekologikoaren alde dabilzanentzat helburu nagusia bertoko nekazaritzarentzat irtenbide errentagarri gisa garatzea da. Mikorrizatutako gaztainondoen landaketa esperimentalek asko lagun dezakete horretan.
GAUR8

proiektu ezberdinak garatu ditu gaia-
ren inguruan. Proiektuon artean na-
barmentzen dira tokiko gaztainondoen
hiru landaketa esperimental, gaztaina
ekoizpenerako. Landaketotan *Boletus
edulis* generoko onddoak (hauek ere,
bertokoak) mikorrizatu dira. Era horre-
tan, gaztainen ekoizpenaz gain, egurra
eta baita onddoak ere ekoiztea aurrei-
kusten da.

Esperimentaziora bideratutako aza-
lera osoa lau hektarea dira, Arabako
herri ezberdinetan kokatzen diren hiru
lursailetan banatuta. Lursail bakoitzak
ondo ezberdindutako ezaugarri klima-
tiko eta fisikoak dauzka. Era horretan,
gaztainondoarentzat egokienak diren
lurzoru motak eta baldintza klimatiko-
ak identifikatzea da helburua.

Bertako gaztainondoaren populazioa
babestu asmoz, saiakera honetan soilik
gaztainondo europarra (*Castanea sati-
va*) landatu da, zuhaitz hibridoaren era-
bilera baztertuz. Argitu beharra dago
Asiako gaztainondoarekin hibridatuta-
ko barietateek tinta gaixotasunari ho-
beto eusten diotela, eta azkarrago ga-
ratzen direla, baina, aldi berean,
bertoko gaztainondoaren ondasun ge-
netikoa “kutsatu” eta kaltetu dezakete.

Gaixotasunekiko erresistentzia, ga-
rapen egokia, ekoizpenik hoberena,
onddoen mikorrizaziorako gaitasuna
eta bestelako irizpideen arabera
txertaka hoberenak aukeratu aldera,
txertaka ezberdinak landatu ziren. Ba-
tzuk TRAGSAk aukeratutakoak dira,
tinta gaixotasunari eusteko duten gai-
tasunarengatik, eta beste batzuk, aldiz,
jatorri arabarreko txertakak izan ziren,
Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zer-
bitzuak eta Gasteizko Ingurugiro Gaie-
tarako Ikastegiak emandako bi tarteko.

LURREAN, ONDDOAK

Gaztainondoak *Boletus edulis* onddoa-
ren esporekin inokulatu ziren, hauek
ere euskal jatorrikoak. Izan ere, asko
hitz egiten da zuhaitz barietateek edo-
ta ortuariak pairatzen duten «higadura
genetikoaz», baina inork ez dio errepa-
ratzen onddoen «higadura mikotikoa-
ri», kanpoko onddoen sarrerak sortzen
duena.

Gorbeiaiko Basterra elkarte mikologi-
koko kideen aholkularitza baliagarria
rekin, Arabako mendietan batu ziren
onddoak. Inokulaziorako, esporea salda
bat prestatu zen, gaztainondo bakoit-
zean 15.000.000 esporea botaz. Espo-

ren kontzentrazioa zehazteko, Euskal
Herriko Unibertsitateko Leioako cam-
puseko Mikologia Departamenduaren
laguntza izan zuen esperientziak.

Boletus generoko onddoen ekoizpena
zuhaitzek beraien heldutasuna (15-18
urte) lortzen dutenean hasiko dela ain-
tzat hartuta, *Cistus ladanifer* txara lan-
dareak ere landatu ziren zuhaitzen ar-
tean, landare mota horretan *Boletus*
generoko onddoak bost urteren bu-
ruan ekoizten has daitezkeelako. Era
horretan, landaketaren errentagarritasuna
hobetu nahi da.

ETA ADABURUAN, GAZTAINAK

Gaztainondoak jatorri ezberdineko
euskal barietateekin eta inguruko kali-
tatezko beste batzuekin txertatzen jo-
an dira. Era horretan, bertoko gaztaina
barietateen ezaugarri eta gaitasunak
(zaporea, tamaina, forma...) aztertze-
ko modua egongo da. Aldi berean inguru-
ko beste barietateak Arabako klimara
eta lurretara nola moldatzen diren ere
ikusteko modua egongo da. Kalitate
goreneko fruituak ematen dituzten ba-
rietateak identifikatzea da helburua.

Gaztainak gizakion kontsumora bi-
deratu daitezke, freskoan, edota eral-

datu ere egin daitezke, izoztuta, lehor-
tuta, modu “naturalean” ontziratuta
edota irina bezala prestatuz. Elika-
gaien industriak gaztainen kontsumo
handia dauka *marron glacé* edo konfi-
tatutako gaztainak zein bestelako pres-
taketak egiteko. Gaztaina irina, bere al-
detik, indarra hartuz doa pixkanaka,
zeliakoentzat egokia denez gero eta go-
zotegi eta okindegi gehiagok eskatzen
baitute.

Kontuan izanda Euskal Herrian mer-
katuratzen diren gaztainen ia %100
kanpotik ekartzen direla, eta Europa
mailan gaztaina ekoizpenari dagokio-
nez defizitarioak garela, ez da zorake-
ria pentsatzea gaztaina ekoizpena oso
interesgarria izan daitekeela gurean.

Saiakerotatik lortzen diren emaitzek,
positiboak izan zein negatiboak izan,
datozen urteetan gaztainondoen kude-
aketa era optimoan egiteko baliaga-
rriak izango dira. Baserritarrak aholka-
tzeko datuak izango ditugu: Arabako
klimarentzat barietate, txertaka eta
teknika egokienak zeintzuk diren esa-
teko moduan egongo gara.



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Eskola kontziliazioa eta etxerako lanak

Tutorearekin hitz egitea erabaki duela esaten ari zaio neskatila mutikoari, lanaldi murrizketa eskatu behar diola. Bere gurasoak gozatu nahi dituela, denbora zitzu bizian doala eta uste baino lehen zahartuko zaizkiola. Biak itxura astuneko motxila bana bizkar gainean hartuta doaz etxerako bidean. Horra telefonoan jaso nuen bineta.

Hurrengo batean, berriz, bideoa izan zen. Zenbait pertsona bildu dituzte lanak beren bizitzan hartzen duen denboraz hitz egiteko. Haietako bat ezkutuan dago, eta gainerakoek asmatu egin behar dute haren lanbidea galderak eginez. Ezkutukoak ematen dituen erantzunetako batzuk dira: zortzi orduko lanaldiaren ondoren, etxean beste hiru ordu lan egin behar izaten dituela; oporretan eta asteburuetan ere lan egin behar duela; ki-deen aurrean lotsarazi dutela agindutakoa ez egiteagatik; zenbaitetan etxekoek lagundu behar izan diotela; ezin duela ezer egin bere egoera aldatzeko; eta abar. Ezkutukoa enpresaria, bitarteko kargua, sendagilea edo zientzialaria dela proposatzen dute, besteak beste, agerian daudenak. Amaieran, pantailaren atzetik neskatila bat, eta ondoren hainbat adinetako neska-mutil andana agertzen da. Sarean barra-barra dabilten bi adibide besterik ez dira, eskola kontziliazioaren alde eta etxerako lanen aurkako kanpainaren barruan.

Etixerako lanen gaiak, «ta-reak» Nafarroako ikasleentzat, punta asko ditu. Eta punta bakoitzari tira eginez gero, hainbat alde agertuko zaizkigu. Denetan aldekoak eta kontrakoak.

Ikerketak ere egin dituzte. Horietako hainbatek ondorioztatu dutenaren arabera, eskola lanei eskainitako denborak ez du zuzenean eragiten emaitza akademikoetan. Gainera, haurrek ikasi eskolan egiten dutela edo gauza garrantzitsuak eskolan ikasten direla suposatzea, agian, asko suposatzea da. Baina zenbateko garrantzia ematen ote diegu neska-mutilek eskolatik kanpoko denboran ikasten dituztenei? Horregatik izango da, denbora horri koxka kentzen diogula, askotan erreparo handirik gabe,

eskolan egindakoari jarraipena ematen dieten lanekin. Hautu horrekin, eskolan egiten denari garrantzia gehiago ematen ari gara eta eskolaz kanpoko gutxiesten.

Ur handiagoetan sartu gabe, esango dugu hezigune askotan eztabaida mahai gainean dagoela, zorionez. Hezigune batzuetan etxekoek bultzatu dute, besteetan hezitzaileek. Ez dirudi leku asko direnik, ordea, neska-mutilei galdetu dietena zer iritzi duten gai horren gainean; bere denbora hainbeste baldintzatzen duen arren.

Eztabaida horretako beste aldagai bat izan beharko litzateke gure neska-mutilen aisia nolakoa den, zenbateraino balio dien autonomia, kritikotasuna, jakin-mina eta abar lantzeko, eta zenbateraino den zeregintsuak edukitzeko eta gurpil kontsumistan lotuta jarraitzeko.

Pixkanaka hezigune bakoitza ematen ari da bere erantzuna. Badira ere Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailari, Nafarroako Hezkuntza Kontseiluari edota Frantziako Hezkuntza Ministerioari esku-hartzeko eskatzen ari direnak, erabakia formalagoa izate aldera.

Garrantzitsua da erabakia, noski. Baina are garrantzitsuagoa eta interesgarriagoa da eztabaida bera. Izan ere, eztabaida horretan ezinbestekoa da funtsezko hainbat alde ukitzea: zein hezkuntza eredu nahi dugun, haurrek eskolan egiten dutenaz eta baita eskolaz kanpo egiten dutenaz ere hitz egin beharko dugu, baita eskolako atetatik haratago dagoen mundu zabal horretaz ere. Azken batean, eztabaidagai jarri beharko dugu gure seme-alabei zer eskaintzea nahi dugun eskolak, etxeak eta kaleak. Haien hezkuntzan hain eragin sakona duten hiru zutabe horiek, harmonian elkar aberasten dutela jakinik ere, elkarren aurka askotan jartzen ditugunak.

Opor garaia da. Aukera aparta egunerokotik ihes egin eta gure neska-mutilekin egoteko, haiekin gozatzeko, haiek entzuteko... eta akaso ahaleginak saria izango du irekita dagoenarentzat: munduari haiekin batera begiratzeko eta deskubritzeko abentura zirraragarria! •



Eskolan egiten denari garrantzia eman eta kanpokoari kendu egiten zaio.

GAUR8

{ koaderno } **Amaia Nausia Pimoulier**

Posterasmusaren bestondoa

Erasmus programan parte hartu duen belaunaldiaren parte naiz ni. 2003. urtean Sienan, Italian, ikasturte oso bat pasa nuen Europar Batasuneko beste ehunka gazterekin. Erasmus programak, gazteen artean mugikortasuna bultzatzeaz gain, Europako hiritartasun sentimendua areagotu nahi zuen.

Ez daukat oso argi bizi nuen esperientzia horren ondoren europarragoa sentitzen naizen, baina egia da L'Incontro tabernaren eta "Storia del Cinema" ikasgaiaren artean ezagutu nituen jatorri ezberdineko lagunei esker nire begirada zabaldu egin zela. Bidaiatzeko grina piztu zitzaidan eta ordutik nire aurrezkiak herri eta esperientzia berriak ezagutzera bideratu nituen. Esan dezakegu hautatutako mugikortasun pertsonala jarri nuela martxan.

Hamar urte baino gehiago pasa dira, eta, aitzak esaten duen moduan, lasaitu egin naiz. Bidaiatzea oporretarako utzi dut eta Iruñean eraiki dut nire familia eta etxea.

Erasmus programako nire lagun batzuk, berriz, erabakita edo behartuta, etxetik kanpo bizi dira: Angelok Italia utzi zuen aspaldi eta orain Bartzelonan dabil kazetari moduan; Richardek, berriz, ikasketak Ingalaterran amaitu ondoren Lyon aldera alde egin zuen; Jordi munduko beste puntan bizi da eta, sinestezina badirudi ere, Patagoniako herrixka batean katalaneko klaseak ematen ditu; Tobi, berriz, munduan barna ibili ondoren, sorterrira itzuli zen eta epailea da orain Berlinen; eta Marian, nire Granadako laguna, historialaria bera ere, Munichen bizi da egun.

Urteotan zehar ezkontza gonbidapenak eta jaioberrien argazkiak jaso izan ditut. Oraindik gogoratzen dut gutariko lehenak bere alaba jaioberriaren argazkia bidali zuenean, orduantxe sentitu nuen lehen aldiz igarotako hamabi urteen zama!

Gure bizitza ikusita helduak garela esan genezake, edo behintzat batzuk gure bizitza proiektua eraiki-

tzen hasi garela. Batzuk diot, ze Espainiako lagun gehienek bizi proiektua bahituta daukate oraindik. Krisialdi ekonomikoak eraginda, Espainiatik ihes egin behar izan zuten lan bila. Esate baterako, Marianek, bere doktoretza tesia defendatu ondoren Espainian lanposturik lortu ezinik, Municheko Unibertsitateko lan eskaintza bat onartu zuen.

Pasa den astean Marianen mezua jaso nuen. Oso haserre zegoen. Rajoyren Gobernuak uztailaren 31n kanpoan bizi diren Espainiako biztanleen errolda itxi zuen, eta, ondorioz, bera eta bera bezalako beste mila-k gazte igandeko hauteskundeetan bozkatzeko eskubiderik gabe gelditu ziren.

Beraien egoerarekin haserre dauden milaka gazte, egungo egoeraraino ekarri gaituzten alderdi tradizionaleri boza emateko prest ez zeuden gazteak. 2013an Fatima Bañez ministroak "*movilidad exterior*" izena

Pasa den astean Marianen mezua jaso nuen. Oso haserre zegoen. Rajoyren Gobernuak uztailaren 31n kanpoan bizi diren Espainiako biztanleen errolda itxi zuen, eta, ondorioz, bera eta bera bezalako beste milaka gazte igandeko hauteskundeetan bozkatzeko eskubiderik gabe gelditu ziren

eman zion atzerriratze masibo horren biktima dira gehienak. Nik ez bezala, aukeratu ez zuten mugikortasuna bizi izan dute.

Erasmus programan geundela Europako hiritarrak ginela, gure eskubideak bermatuta zeudela eta dena eskura genuela sinistarazi ziguten. Orain ohartu gara hiritartasun horrek posterasmus bat bizi duela, Erasmus programan geundela jasan genituen bestondo horietako baten antzekoa. •

«Jon Salaberrik bazekien kopetan ‘heriotza’ idatzia zuela, baina garbi zuen hiesa gerarazi behar zela»

JOXE ARANZABAL

KAZETARIA ETA IRAKASLE OHIA

Amaitzera doan 2015ean hogeitau urte bete dira Jon Salaberri arrasatearra hiesaz hil zenetik. Joxe Aranzabalek plan oso bat garatu du bere istorioa eta lezioa argitara ekartzeko, artean badagoelako zer ikasi.

amagoia.mujika@gaur8.info

Ez zuen laguna, ezta familiakoa ere. Komunikabideetan jasozuen haren bidearen berri, baina, arrazoi zenbait tar-teko, Joxe Aranzabal estu lotu da Jon Salaberri zenaren bidera. Euskal Herrian publikoki hiesa zuela esan zuen lehena izan zen Jon Salaberri, eta gaixotasunak baimendu zion azken energia poxia horretan gastatu zuen; hiesaren berri eman, informazioa zabaldu, estereotipoak hausten saiatu eta gaixotasuna ahalik tinkoen gerarazi. Hogeitau urte bete dira hiesaz hil zenetik eta, oraindik ere, datuak ez dira lasai egotekoak. Oraindik ere beharrezkoa da Jon Salaberriren mezuari bozgorailua jartzea.

1980ko hamarkada bukaera-1990eko hamarkada hasiera. «Arrasate Press» aldizkari-ko zuzendaria zinen. Bazenuen kezka herrian hiesarekin ematen ari zen egoeraren inguruan? Zein zen giroa?

Aurretik AEBetan eta Kanadan bizitzen egon nintzen eta han nengoela hasi nintzen ikusten jendea hiltzen ari zela gaixotasun ezezagun bat zela-eta. Sekulako astakeriak esaten ziren hiesaren inguruan. Halako batean, Rock Hudson aktorea agertu zen hiesa zuela esanez, gaixotasuna-

ri aurpegia jarri zion eta jendea beste modu batean hitz egiten hasi zen.

Arrasatera bueltatu nintzen eta hasiera batean ez zen askorik entzuten hiesaren inguruan, baina 1984tik aurrera-edo, geroz eta gehiago. Ni “Arrasate Press” aldizkarian ari nintzen lanean eta konturatu nintzen herriar batzuk hiesak jota hiltzen hasi zirela, eta hemen ere astakeriak zabaltzen hasi zirela, ezjakintasunaren eta beldurraren ondorioz. Pentsatu nuen –AEBetan bezala– hemen ere garrantzitsua izango zela pertsona ezagunen batek gaixotasunari aurpegia jartzea. Saiakera batzuk egin nituen, baina ez nuen lortu.

1991 inguruan hasi zen komunikabideetan agertzen Jon Salaberri. Arrasatearra zen ni bezala baina ez nuen ezagutzen, urte asko eman baintuen kanpoan. Nik bere aita ezagutzen nuen. Segituan konturatu nintzen garbi eta ondo hitz egiten zuela, eta oso garbi zuela zein mezu helarazi. Lan benetan izugarria egin zuen gaixotasunaren berri ematen eta aurreiritziak eta beldurrak apurtzen.

Nor zen Jon Salaberri?

Arrasateko Alde Zaharrean bizi zen mutiko bat zen. Arrasaten bertan egin zituen ikasketak eta, soldadutzatik bueltan, Eusko

«Gaixotu zenean bere baitan erabaki bat hartu zuen. Garbi zeukan hiltzeko arrisku handia zuela eta misio bat topatu zuen bidean: hiesaren berri ematea eta bera bezala gaixo zeudenei laguntzea eta haien alde borrokatzea»



Jaurlaritzaren lan deialdi batean parte hartu zuen. Proba gaimendu eta lanpostu bat lortu zuen Nekazaritza Sailean. Gurasoekin bizi zen eta bere soldata zeukan.

Oso gazte aktiboa zen. Asko irakurtzen zuen, ezkerreko ideiak zituen, antifrankismo gogor baten parte sentitzen zen. Gizartearekin apurtu nahi zuen. Apurtu nahi horrek, inkonformismoak, bide berriak probatu nahiak eraman zuen, beste asko bezala, drogen mundura. Oso lotsagabea eta ausarta zen. Iruditzen zait autoestimua ikaragarria zeukala eta eskerrak, gaixotu zenean hori bere mesedetan erabili zuelako.

Hiesa zuela jakin zuenean bere bizitzari zentzu garbia topatu zion: gaixotasun ezezagun horren berri ematea.

Gaixo zegoela jakin zuenean, mahai txiki bat eta aulkitxo bat hartu eta Arrasateko Portaloian jartzen zen egunero, paperak banatzen. Bere izenean ari zen, elkarte gerora sortu baitzuten. Jendeak mesfidantzaz begiratzion, zer egiten ari zen ulertu gabe. Hori egiteko, zalan-tzarik gabe, nortasun eta indar handia behar da.

Gaixotu zenean bere baitan erabaki bat hartu zuen. Garbi zeukan hiltzeko arrisku handia zuela eta bere bizitzari zentzu bat eman behar ziola erabaki zuen. Misio bat topatu zuen bidean: hiesaren berri ematea eta bera bezala gaixo zeudenei laguntzea eta haien alde borrokatzea. Lan ikaragarria egiten hasi zen. Informazioa jasotzen zuen medikuekin hizketan; Gasteizko talde batekin harremanetan jarri zen esperientzia hori Deba-goienera ekartzeko; Bizkaiko beste talde batengana gerturatu zen... uste dut oso pragmatiko bihurtu zela. Bazekien egoera kaskarrean zegoela eta misio horren alde lan egiteko zenbait gauza konpondu behar zituela aurretik. Lehena, etxekoekin zeukan harremana. Ordura arte arrebarekin ez zuen harreman onik. Arrebarekin gauzak konpondu eta behin etxeko kon-

tuak bideratuta, kanpoan laguntza eske eta konplize bila abiatu zen, eta bidean topatu zuen Domi Korta. Oso gizon pragmatikoa zen. Hori da gehien harritu nauen tasuna.

Bere bizitza eta bizimoduan badira detaile asko oso aurrerakoia zela adierazten dutenak.

Hala zen. Bere homosexualitatearen aldeko defentsa publikoa egin zuen Nekazaritza Sailean bere bulegoko ohar-taulan. Eta hil ondorenerako, oso garbi utzi zuen ez zuela bere gorputzaren arrastorik elizan sartzerik nahi. Idatzita utzi zuen bere izekoek –elizkoiak zirela bazeki-lako– nahi bazuten bere aldeko meza egin zezaketela, baina bera elizan sartu gabe. Bere izekoek izugarri lagundu zioten eta bazekien haientzat garrantzitsua zela mezarena. Bere testamentua irakurrita ikusten da oso tipo jantzia zela eta bere printzipioak eta balioak oso garbi zituela.

Dagoeneko aipatu duzu Domi Korta, oso pertsona garrantzitsua Jon Salaberriren bizitzan.

Domi Korta sekulako emakumea da, natura pertsona egina. Jon informazioa zabaltzeko bile-rak egiten hasi zen garaitsu be-rean jakin zuen Domik bere seme batek hiesa zuela. Jonek deialdia egin zuen bilera bat egiteko gaztetxean. Domi enteratu zenean, bilerara joan zen erresuminduta, pentsatzen baitzuen bere semeen gaitzen erantzule zela gaztetxea [bi semeek zuten hiesa. Bat Jon Salaberri hil eta bost hilabetera hil zen. Bestea bizi da].

Jonekin lehen kontaktua oso gogorra izan zen. Jonek hitz egiten bukatu zuenean, Domik altxatu eta bere gaitz eta min guztiak leporatu zizkion, eta korrika atera zen gaztetxetik. Jonek atzetik segitu zion eta la-saiago berekin berbetan hasi zen; azaldu zion bera homose-xuala zela, berak ere hiesa zuela eta talde bat antolatu guran zebilela. Orduan Domi konturatu zen aliatuak izan zitezkeela, eta

geroztik oso harreman berezia sortu zen bien artean.

Jonek hitzaldiak ematen zituen eskoletan eta institutuetan, informazioa eman eta heziketa lana egiteko. Gaixotasunak aurrera egin ahala oso ahul sentitzen zen eta maiz ez zuen indarrik izaten, eta Domi bidaltzen zuen. Domik kontatzen du Jonek detailera prestatzen zizkiola hitzaldiak eta berak beti esaten zuela Jonen izenean hitz egiten zuela. Elkar ikaragarri miresten zuen biek.


Arreba, Idoia, eta izeko Dorita eta izeko Felisa ere emakume garrantzitsuak izan ziren bere bizitzan.

Zalantzarik gabe. Idoia beti-beti bere ondoan egoten zen. Jonen bizitzan presentzia bat bihurtu zen bere arreba. Une batean, anaiari aurre egin zion; esan zion nahikoa zela, ezin zuela horrela jarraitu drogarekin jolasean. Uste dut hori klabea izan zela Jonentzat, eta horri esker, Idoiak behartuta, zenbait erabaki hartu zituela.

Eta izekoak ere hor daude. Liburuan jasotzen dudana argazki hunkigarrienetakoa 1994. urtean Kanarietan ateratakoa da. Bertan Jon agertzen da bi izekoe inguratuta, hirurak opor giroan. Ordurako Jon oso gaixorik zegoen, oso ahulduta, eta, hala ere, Kanarietara oporretara eraman zuten bi izekoek. Argazkiak baldintzarik gabeko maitasuna transmititzen du. Belaunaldi horretako emakumeek, galderarik egin gabe, ezer eskatu gabe, ezer leporatu gabe, besoak zabalik hartu zituzten gaixo zeuden senideak eta mimo guztiarekin zaindu.

Esan duzunez ez zenuen ezagutzen. Zergatik lotu zara hain esku bere historiara?

Jon Salaberri hil eta urte batzuetara ni gaixotu egin nintzen, minbiziaz. Akordatu nintzen nola ibili nintzen hiesaren inguruko lekukotza emango zuen norbaiten bila eta pentsatu nuen orain nire txanda zela, nire lekukotza eman behar nuela.



Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

«Jon hil eta urte batzuetara minbiziaz gaixotu nintzen. Harekin akordatu nintzen; izorratuta baldin bazaude eta sumatzen baduzu gaixotasun horren inguruan beldurrak eta aurreiritziak daudela, eman testigantza»



Hasieran Sustatu agerkarian idatzi nuen eta sendatu nintzen nire gogoetak liburu batean bildu nituen [“Medikuak esan dit minbizia dudala”, Elkar, 2005]. Liburua aurkezteko hitzaldi sorta bat eman nuen eta denetan aipatu nuen Jon Salaberri eta berak egindako lan itzela.

Jon Salaberri bide baten urratzailea izan zen zure ustez, eta zu bide horretan sentitzen zara. Zein da bide hori?

Testigantza ematea. Zu izorratuta baldin bazaude eta sumatzen baduzu zure gaixotasunaren inguruan beldurrak eta aurreiritziak daudela, eman testigantza. Egia da hiesaren eta minbiziaren inguruko iritziak eta aurreiritziak ez direla berdinak. Jonek arbuioa jasotzen zuen, beldurra, bazterketa. Nire kasuan desberdina zen, juxtu kontrakoa sentitzen nuelako, berotasuna eta babesa. Baina bada arazo bat minbiziaren inguruan ematen dena eta bereziki kezkatzen nauena; jendeak oso gutxi hitz egiten du minbiziaren inguruan argi eta garbi. Eta horregatik erabaki nuen nire gaixotasuna-

ren berri idaztea, gaixotasuna zabaltzea.

Desberdintasuna da, akaso, jendeak pentsatzen zuela Jon Salaberrik zeozer egin zuela gaixotzeko eta zuri besterik gabe etorri zitzaizula.

Hor dago gakoa. Nik enpatia asko jaso nuen eta iruditzen zait berak oso gutxi jaso zuela.

Bere inguruan proiektu oso bat bultzatu duzu. Zergatik?

Ez zaidalako zuzena iruditzen ahaztea ahaztu dugun moduan. Hasi nintzen sarean begiratzen eta ez nuen ezer topatzen, salbu “Argia” aldizkariak bere garaian egin zion elkarriketa bat. Wikipedian arrastorik ez. Eta hori ez zela zuzena pentsatu nuen. Jon Salaberri ez zen santua, eta premiarik ere ez santua izateko, baina gizatasun lezio ikaragarria eman zigun, eta ez da zuzena modu horretara ahaztea.

Hogei urteren ondoren bere lezioak balioa al du oraindik?

Bai, zalantzarik gabe. Gainera, duela gutxi irakurri dudanez hiesak goraka egin du Euskal

Herrian. Horrek esan nahi du lasaitzen ari garela, batez ere gazteak. Nola ez den lehen bezain hilkorra eta nola kronifikatu egin den... Salaberrik lan izugarria egin zuen bere inguruan informazioa zabaltzen eta kontzientziatzen. Droga munduan zebiltzan lagunengana joan eta sekulako errietak egiten zizkien xiringak ez berrerabiltzeko esanez, edo sexu harremanak babesarekin egiteko. Jon Salaberrik kezka handia zuen informazioa jasotzeko eta gero zabaltzeko. Bazeukan belaunaldi berriekin lan egiteko kezka hori, bazekien hor gako garrantzitsua zegoela etorkizunari begira. Berak bazekien kopetan “heriotza” hitza idatzita zuela, baina garbi zeukan gaixotasuna gerarazi egin behar zela, ezin zuela gehiago zabaldu.

Bere ibilbidearen berri zabaltzeko plan oso bat diseinatu duzu.

Beti nuen buruan zerbait egin behar nuela Jon Salaberriren memoria berreskuratzeko. Aurrejubilatuta eta denbora gehiago nuenez, plan bat egin nuen bai



Lerro hauen gainean, Jon Salaberri eta Jose Antonio Ardanza lehendakariaren arteko besarkada osteko unea. Ardanzaren ondoan Iñaki Azkuna ageri da, garai hartan Osakidetza burua zelako. Goian, eskuin aldean, Jon bere izekoekin Kanarietan oporretan. Eta alboan, garaian oso entzutetsua izan zen kanpainaren kartela. Eduardo Txillida artista famatua eta Irene Laffitte margolari donostiarra, Jon Salaberriren alboan.

DEIA-GAUR8

errealitate fisikoan eta bai birtualean Jon Salaberriren arras-toa geratuko zela ziurtatzeko. Batetik, erreportaje bat argitaratu nuen Sustatu agerkarian, Euskal Herri osoari begira. Horrez gain, beste erreportaje bat argitaratu nuen “Puntua” aldizkarian. Debagoienan zenbait jende akordatzeko da Salaberrirekin, baina gero eten bat gertatu da eta belaunaldi berriek ez dakite ezer hari buruz. Gainera, bere lagunekin elkartu eta Jonen argazkiak lortzen saiatu nintzen, eta horiek guztiak Flickr plataforman digitaletan jarri ditut lizentzia askean. Material horrekin guztiarekin Wikipediako sarrera atondu nuen.



Han eta hemen bildutako material hori guztia bildu eta Goiena Komunikazio Taldera joan nintzen. Neukan materiala azaldu nien, Jonen istorioak merezi zuela nabarmendu nien. Hartara, “Puntua” aldizkariko erreportajea hitzartu genuen eta eurak dokumentala osatzen hasi ziren.

Julen Iriondok oso lan txukuna zuzendu zuen eta Rikardo Arregi saria lortu zuen dokumental horregatik.

Eta orain aste batzuk liburu bat kaleratu duzu

“Jon Salaberri, hiesdunen aldeko ekintzailea”, sarean eta doan da-

go hiru formatutan: epub, mobi eta pdf.

Salaberriren bizitzaren informazio bila nenbilela, bat-batean gogoratzen ez nuen pasadizo baten berri izan nuen: nik Jon Salaberriri “Arrasate Press” aldizkarian idatzitako gutun bat. 1991. urtean Benetton enpresak publizitate kanpaina polemikoa zabaldu zuen. Argazkian gizon gazte hiesduna agertzen zen, hilzorian, bere familia ohe inguruan zuela. Kanpainak protestak eragin zituen, tartean gay kolektiboenak eta hiesdunen aldeko aktibistenak. Salaberri ere kanpainaren kontra agertu zen eta nik erantzun egin nion esku-titz horretan.

Nik gustuko nuen Benettonen estiloa eta nolabait defendatu egin nuen bere kanpaina. Bani-tuen arrazoi nahikoak nire ikuspuntua defendatzeko, baina esku-titz horretan oso enpatia gutxi azaldu nuen. Eta nire buruari zin egin nion, aukera banuen, hori konpondu behar nuela.

Behin buruan neukan plan guztia bete nuenean, pauso guztiak eman nituenean, krisian sartu nintzen, “eta, orain, zer?”. Eta horregatik erabaki nuen, plana bukatzeko, liburu hau kaleratzea. Eta zerbait berria ematearren, aipatutako eskutitz horren pasadizoa eta bost argazki eta horien istorioa jaso ditut liburuan.

Bost argazki gehitzea eta horien istorioa kontatzea da liburuan egin duzun ekarpena. Horietako batek jasotzen du Jon Salaberriren eta Jose Antonio Ardanza orduko lehendakariaren arteko besarkada.

1993. urteko martxoan Bilbon hiesaren kontrako kongresu bat egin zen. Inaugurazioan, Ardanzak eta Jon Salaberri besarkada bat eman zuten publikoan eta jende askoren aurrean, tartean osasuneko profesionalak eta kazetariak. Salaberri eta Ardanza antipodetan zeuden politikoki eta sozialki, Jon ez zegoen Ardanza-aren ildo politikoarekin ados, baina ulertzen zuen besarkada horren garrantzia. Gizartean beldur handia zegoen hiesarekin, ezezagutza handia, eta jende askok pentsatzen zuen besarkatze hutsarekin kutsa zitekeela hiesa.

Une hartan horrelako keinuak oso garrantzitsuak ziren eta balioa eman behar zaie. Aurten bertan hitz egin nuen Ardanzarekin besarkada hartaz, proiektuaren harira, eta esan zidan garbi gogoratzen duela. Apropos besarkatu zuela Jon, garai hartan Eusko Jaurlaritzan kezka handia zutelako hiesarekin eta gizartean era guztietako zurrumurruak zabaltzen ari zirelako, gaixo bat ukitzea nahikoa zela kutsatzeko eta horrelakoak. Horregatik oso garrantzitsua izan zen keinu hura.

AURTEN ALTXOR BAT OPARITU

Ehunka preso eta
erbesteraturen testigantzak eta
dozenaka artisten lanak

**Gure aroko
memoria bizia**

**Belaunaldi berriekin
partekatzeko kutxa
hunkigarria**


NOLA ESKURATU?

www.ametsenliburua.info-n
edo **944 237 273** telefonoan
eta etxera bidaliko dizugu

55€
kutxarekin

75€ Liburu dendetan

50€
kutxa gabe



Equberrietako opari bikaina



Jon URBE | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

HAUTESKUNDEAK ETA MOJAK, ZAHARRAK BERRI?

Hauteskundeetan botoa ematen agertzen diren mojen irudia klasiko bat bihurtu da. Irudi garaikide batean aspaldiko elementu bat agertzearen kontrastea izango da igual; janzkera berezi horrek hartzen duen presentzia akaso; moja batek bere botoa nori eta zertarako ematen dion jakiteko nahia beharbada...

Eta? Mojak al dira irudi horretan aldatzen ez diren bakarrak? Mojak ez diren beste guztia hainbeste aldatu al da sufritu berri ditugun hauteskundeotan? Egia al da haizeak jite berria dakarrela? Jose Antonio Munilla Donostiako gotzainak, nola ez, bere

iritzia eman du badaezpada: «Hauteskunde orokorrek utzitako emaitzak gaixo dagoen gizarte baten isla dira». Nonbait Muni-llarentzat iritzi aniztasuna ez da sintoma sana.

Munillak esandakoak aparte utzita -aspaldi utzi genion bo-
rondatez sermoiak entzutera joateari-, ondo legoke hauteskun-
de hauetan mojak izatea klasikoa den elementu bakarra, eta
Madril aldean haize berriak egiatakoak izatea. Eta, gurean, pix-
ka batean klausurako bihurtu eta hausnartzera, ibili beharreko
bidean fedea galdu gabe. amagoia.mujiaka@gaur8.info

Giltzak

Mirari Martiarena

Urtea bukatzera doa. 2016aren atarian gaude. Egutegiaren azken orri meheak salatu digu bukatzera dola; aurtengo 365 egunak pasa direla. Batzuentzat azkarregi pasako ziren, besteentzat motelegi eta izango da urte erdia azkar eta beste erdia motel pasa zaionik ere. Egutegi berriak zain ditugu paretetan zintzilik jartzeko eta agenda zuriak prest bileretako hitzorduez betetzeko. Zenbat zubi, jai egun eta oporraldi ditugun kontatuko dugu, gero erdiak aprobeztatuko ez ditugun arren.

Balantzeak egiteko ordua izaten da urte bukaera. Balantze ekonomikoak, balantze emozionalak, balantzeen balantzak. Eta helburuak bete ditugun edo ez axola gabe,

datorren urteari eskean hasiko gatzazkio. 2016rako helburuak finkatuko ditugu, osasuna eta maitasuna eskatuko dizkiogu. Gauza txarrak eraman ditzala aurtengoak eta onak ekar ditzala datorrenak. Izan dadila datorrena pasa duguna baino hobea, eta «ez da zaila» gehituko diote askok.

Urte berriari izan ditugun eta ditugun beldur, arazo eta buruhauste guztiak konpontzeko eskatuko diogu. Urtarrilaren 1ak denak desagerraraziko balitu bezala. Egutegiko orria urtez aldatzearekin, magia bidez benetan bizi berri bat hasiko balitz bezala. Egia da, mugarri den egun bat dela, baina miraririk ez da gertatzen. Eta gertatzen badira niri ez zaizkit egokitu. Urte berria besondoarekin edo mendi bueltarekin hasiko

dugu gehienok. Ausartenak, parrandatik mendira joango dira.

Askotan gudan dauden mamuak uxatzeko giltzak guk geuk ditugu eta iruditzen zaigu urte berrian esne mamitan esnatuko garela: beldurrik, arazorik eta haserrerik gabe. Tamalez, gehienetan, hortxe jarraitzen dute eta guk erabaki behar dugu horiekin bukatzeko aroa noiz hasten den. Izan urtarrilaren 1a, maiatzaren 11 edo abenduaren 31.

Ez dut ezkortasun mezurik zabaldu nahi. Giltzak aurkitu eta erabiltzean dago gakoa. Egunero giltzatu daitezke ateak eta giltza horiekin zabalduko ditugu bide berrietako atakak. Ez dugu urtarrilaren 1aren zain egon beharrik zoriontsu izaten hasteko. •

Ateo baten Gabonetako aholkuak

Koldo Sagasti

A tzo ezagun batek nire kontraesanak aurpegiratu nahi izan zizkidan familiarekin bazkaltzetik nentorrela kontatutakoan. Itxuraz, ni bezalako ateo militante batek Gabonak ospatzea inkoherentzia larria da. Nik ezetz, kristauen Eguberria ez dudala ospatzen, baina ganorazko otoruntza bat ezin zaiola inori ukatu, ezta nire gisako fedegabe bati ere, eta heretikook ere badakigula gastronomiaren gutuziez gozatzen. Gainera, kristauen buruzagiaren ustezko jaiotza neguko solstizioarekin bat eginaraztea elizaren kontakizun ofizialaren ardura dela esan nion, eta urtaro aldaketa jatorrizko kultura pagano guztietan izan dela ospa-

tzeko zioa, orduantxe ematen baitio bide gaurik luzeenak argiaren aroari. Eta solaskideak, nire koherentzia eza azalarazten tematuta, ea oparirik egiten ote genituen etxean. Eta nik baietz, jentilok ere gustura jasotzen eta egiten ditugula opariak, hori ez dela fededunen kontua bakarrik, gauza bat dela Gabonetako kontsumismoaren gurpil zoroan murgiltzea, eta oso bestelakoa maite duzunari totem batez jakinaraztea. Eta besteak ea alaba, koskortzen denean, parkeko jaiotza ikustera eramango ote dudan. Eta nik horrek ez didala inolako kontraesanik sortzen, jaiotzak nobelako pertsonaia baten bizitzako pasarteak iruditzen duela, eta garai bateko Bethlehem

herria erakusten duela, eta ariketa interesgarria izan daitekeela muntaketa horretan anakronismoak bilatzea eta gaur egungo Palestinako herriarekin alderatzea. Eta hori guztia gutxi balitz, jakinarazi nion aurtent kotilioira ere joango naizela, nola ez, Hala Bedi iratiak antolatzen duen Gabon zaharreko ospakizun ateora, hain zuzen. Badirudi pentsaera hegemonikoari ihes egiten diogunok beste inork baino zuzentasun politiko handiagoa erakutsi behar dugula gure sinismenekin. Lan nekeza da, gero. Hobe nik bezala jokatzeko, gogoak ematen didana egitea lehenik, eta gero, artista garaikideen modura, argudiatze itxuroroso bat asmatzea. •



Ilusioz hartu du Peñagarikanok bere zeregin berria. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

infraganti KEPA PEÑAGARIKANO

«Ofizio askoko behargina, pobrea seguru» esaerak ez du Kepa Peñagarikano kikildu. 34 urterekin pilotari profesionala izan da, suhiltzaile izateko oposaketak prestatu ditu, anbulantziak gidatu, masaje kontsulta bat zabaldu du, eta, Binakako Txapelketa hasi denetik, material hautatzailea ere bada. Azken egiteko horren inguruan aritu da GAUR8rekin.

Duela urte eta erdi Aspek kontratua berrituko ez ziola jakinarazi zionetik, ordura arte bere bizitzaren ardatzetako bat izandako pilotarekin nolabaiteko etena egin zuen Kepa Peñagarikanok, nahiz eta Zesto-

ako pilota eskolako haurrei irakasten jarraitu duen. «Astean bi entrenamendu egiten ditugu eta agendaren arabera moldatzen naiz. Udaberrian Herriarte-ko Txapelketa hasiko da eta hori izaten da urteroko helburua», azaldu digu hurrekin egiten duen lanaren inguruan. Andoain, Beizama, Azpeitia, herri

esanguratsuak dira guztiak bere bizitzan, baina Zestoan ematen ditu orain ordu gehienak.

Abenduaren hasieratik ordu-tegiak egokitzeko arazo berri bat sortu zaio beizamarrari, ezustean jasotako dei batean espero ez zuen eskaintza jaso baitzuen: azken hamahiru urteetan Juan Mari Juaristi *Atano XIII.a* pilotari ohi azkoitiarrak betetako material hautatzaile postua betetzea. 24 orduz familiarekin hitz egin eta aldeko eta kontrako arrazoiak aztertu ostean, pilota berriz ere bere bizitzaren ardatzetako bat izatea onartu zuen, eta, gutxienez astean bitan, asteazken eta ostegunetan batez ere, kilometro piloa egin beharko ditu autoz Aspe eta Asegarce-ko pilotariak txapelketetan erabiliko dituzten pilota egokiak apartatzeko. Oraingoan, partida gehienak etxetik nahiko gertu izan ditu –guk Urretxun harri-patu dugu–, baina etorriko da Logroñora edo Arnedoraino joan beharra ere.

Eta zeregin hori azken 11 hilabeteotan ofizio izan duen masajista lanarekin uztartu beharko du. Izan ere, duela ia urtebete kontsulta bat ireki zuen Zestoan bertan. Pilota munduan “enpresa pilotari” bezala ezagututako kirolariak duten etorkizun zailak bultzatu zuen Peñagarikano etorkizuna osasungintzara bideratzera. Kontratuak urtebetekoak baino ez zirela-eta, anbulantziak gidatzen aritu zen lehenik. Gerora, baina, masajista ikasketak amaitu eta Zestoako futbol taldean aritu ostean, bere kasa hasi da masajeak ematen. «Ofizio denetan bezala, ikasten eta esperientzia hartuz joan beharra dago eta horretan ari gara», azaldu digu.

Lanbide guztiek beharrezko duten egokitzapen prozesua askoz azkarragoa izan da ezinbestean material hautatzaile bihurtzerako orduan. «Txapelketa hasi baino bost egun lehenagoko kontua izan da kargua hartzearena. Dena bat-batean izan da, praktikarik ez dut izan eta zuzenean Binakakoan sartu naute». Bere aurrekoak ez bezala, Kepa Peñagarikanok ez du udako torneotako eta beste

lehiaketa txikiagoetako hautatzaile gisa aritu beharko, baina, Binakakoa, urteko txapelketarik luzeena, nolabaiteko ikastaro trinko bat izango da berarentzat. «Aste pare bat baino ez dira hasi ginela eta gustura nabil. Oraindik sekretuak-eta pixka bat bilatzen, erreferentziak piltzen nabil: botea nola egiten duen pilotak, frontiseko irteera nolakoa duen... Hamalau jardunaldi dira eta nik uste ondo etorriko zaidala kailua egiten joateko. Ea nola irteten den».

Material hautatzailea aldatzetik harago, Eskuzko Pilota Enpresen Ligak zenbait moldaketa egin ditu, nolabait ere, egungo beharretara, batez ere telebistaren nahietara, moldatu asmoz. Hala, lehen enpresa bakoitzak bikoteko hamar pilota aurkeztu zituen pilotalekuko, hogei denera; ostean, hautatzaileak horietako hamar aukeratu behar zituen, egoera zehatz bakoitzerako egokienak, nahiz eta sarri aldaketa handiak eman material aukeraketa egunetik partida egunera –frontoiak hutsik eta hotz egotetik beteta eta berogailua piztuta izatera igarotzen dira–. Orain, ordea, enpresa bakoitzak zortzi pilota aurkeztuko ditu, hamasei orotara, eta Peñagarikanok aukeraketa hamar pilotatan utzi beharko du.

Ordea, zenbakian baino, desberdintasuna piloten jatorrian egongo da. Izan ere, orain arte, hautatzaileak bazekien pilota bakoitza zein enpresak jartzen zuen, baina orain denak nahastu egingo dira eta Peñagarikanok ez du jakingo pilota bakoitza nork jarritakoa da. Gerta daiteke, hortaz, partida batean alde batek jarritako pilota gehiagorekin jokatu beharra egotea. «Gatazkak baretzeko ona izan daiteke. Gainera, enpresek ere asko findu beharko dute beren lana, jokoan jarritako pilota gehienak beste aldeak ipinitakoak izan daitezke-eta bestela».

Beste aldaketa nagusiak partidaren erritmoarekin du zerikusia: Binakako Txapelketa honetatik aurrera pilotak kolorezko zenbakiak eramango dituzte, materialaz aldatzeko garaian denbora gehiegi xahutzen zelako lehen.



Kepa Peñagarikano pilotari ohiaren lanbide berriaren sekretua 105 gramo inguruko larruzko pilota egokiak aukeratzean datza.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

Orain arte zenbait zalantza sortzen ziren, baina, hemendik aurrera, une oro argi izango dute bai pilotariak eta baita telebista kamerek ere zein pilotarekin jokatu den hurrengo tantoa.

Aldaketak aldaketa, Peñagarikanok oso barneratuta dauka bere karguak polemika barnean daramala. «Azkenean pilotari bakoitzak bere interesak ditu, partida irabazi beharra dauka. Nire helburua frontoian ahalik eta ikuskizun onena egotea da eta horretarako pilota egokiak jarri behar ditut, horretan oinarritu behar da nire lana», azaldu du. Oso argi dauka inor bere lanaz ez gogoratzea izango litzatekeela beretzat onena. «Dударик gabe, ea inork ez duen nire izena ahotan izaten, horixe izango litzateke seinalerik onena», onartu digu. Ildo horretatik joan zen luzaroan hautatzaile izandako Juan Mari Juaristik eman zion aholkurik garrantzitsuenak. «Elkarrekin egon ginen eta azaldu

zizkidan bere trukuak-eta, berak gauzak nola egiten dituen. Baina nire bidea egin behar dudala esan zidan. Baita ere esan zidan oharkabea pasatzen saiatzeko, horixe izango dela nire garaipenik onena».

Debuta ez zen, ordea, berak nahi bezala joan, Atano III.a pilotalekuan jokatuako partidari, nabarmenak izan ziren-eta Pablo Berasaluze Altuna III.ak eta Merino II.ak hautatutako pilota batekiko egingako desadostasun keinuak. «Lana erraza ez dela badakigu eta azkenean nire kontzientziarekin lasai geratu beharra daukat. Badakit batzuetan hanka sartuko dudala, eta,

«Juan Mari Juaristik bere trukuak erakutsi zizkidan, baina nire bidea egin behar dudala esan zidan. Oharkabea pasatzen saiatzeko ere esan zidan, horixe izango dela nire garaipena»

«Lana erraza ez dela badakigu eta azkenean nire kontzientziarekin lasai geratu beharra daukat. Batzuetan hanka sartuko dut eta egun horietan gertatutakoa irentsi egin beharko dut»

egun horietan, gertatutakoa irentsi egin beharko dut. Beste batzuetan, aldiz, kexaren bat edo beste izango da eta agian arrazoirik ez dutela irudituko zait. Baina pilotariak bere iritzia dauka, baita kexatzeko eskubi-

dea ere. Kritika eraikitzaile bezala hartu eta aurrera».

Peñagarikano bera pilotari profesionala izan da orain oso gutxira arte, eta, horrenbestez, gauzak beste aldetik ikus-tea egokituko zaio orain. «Egia esan, ez

naiz ni kexatzekoa izan, normalean beti gustuko materiala aurkitu izan dut. Azkenean, aurkariena ez bazaizu asko gustatzen, zurearekin pozik geratzen zara

eta besteenarekin jokatu egin behar», azaldu digu filosofiaz.

Zer behar du edo zer izan behar da kontuan pilota bat egokia izan dadin? «Botea, batez ere. Egungo pilotak nahiko biziak dira eta bote handia hartzeko joera daukate; hori saihestu egin behar dugu. Bote handia itsusia da; pilota azpitik ibil dadila eta gero ez izatea esajerazio bat frontiseko irteera. Erreferentziak lurrean nola dabilen eta frontisetik nola irteten diren izaten dira».

Badira materialaren garapenak jokoa aldatu egin duela diotenak, baina Peñagarikano bera ez dago ados. «Pilotariak euren jokatzeko era aldatu dutela da kontua. Airez gero eta gehiago jokatzen da, gero eta erritmo altuagoan, eta pilotariak abiadura nahi dute, pilota azkarrak nahi dituzte tantoa azkarrago egiteko». Izan ere, zer litzateke pilota bere polemika dosirik gabe? •

Jon Ormazabal



Ana Arruarte

EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Ai ama, oporretara noa eta...

Ai ama, oporretara noa eta tren-txartela baino ez daukat! Eta argazki-kamera bat erosi nahi nuen joan aurretik. Eta hotela ere, alde aurretik erreserbatzea

litzateke egokiena. Baina zer kamera erosi? Eta zer hotel erreserbatu? Zein zonaldetan? Zenbat izarretakoa? Eta, erosi-ko al dut libururen bat trenean irakurtzeko? Zer generotakoa? Edo, film bat erosi-ko dut tabletan ikusteko? Drama, akzioa...? Galdera gehiegi, zalantza gehiegi kuadrilako lagunekin pote bat, edo bi, edo hiru hartzen ditugun bitartean argitzen laguntzeko. Izen ere, gaia ezagutuko al dute? Eta ezagututa ere, nitaz kokoteraino bukatuko dute. Baina, une honetan, nahi eta nahi ez, aholkuen beharrean nago.

Lagun eta ezagunak alde batera utzi eta badago, ordea, beste aukera bat. Internetez baliatuko naiz hau guztia lortzeko. Gaur egun, gero eta hedatuago daude Amazon edo Booking, edo, gurera etorrita, Elkar bezalako negozioak, argazki-kamera merkea, hotel txukuna, edo liburu eta film entretenigarriak bilatzeko. Erabiltzaileari Interneten interesgarri duen eduki bat modu eraginkorrean bilatzea ahalbidetzen dion teknologiari gomendio-sistemak deritzogu. Sistema hauen helburu nagusia da, Interneten dabilen informazio andanaren artean, erabiltzailearentzat egokia den edukia topatzea; haren nahiak asetzen dituen produktu edo eduki hori.

Hiru dira, nagusiki, gomendio-sistemek kudeatzen dituzten elementuak: itemak edo produktuak, erabiltzaileak eta transakzioak. Itemak gomendatzen diren edukiak dira; adibidez, kamerak edo filmak. Transakzioak, berriz, erabiltzaile eta itemen arteko erlazioak dira, pertsona-ordenagailu interakzioan sortu eta jasotzen direnak; adibidez, klik bat eginez zer argazki-kamera erosi adierazten dudanean (balorazio inplizitua), edo eta filma ikusi ostean ematen diodan puntuazioa zuzenean ordenagailuan idazten dudanean (balorazio esplizitua). Transakzioetan jasotako datu guztiak, inplizitu zein esplizitu, dira gomendio-sistemek erabiltzaileei zer gomendatu erabakitze-ko erabiliko duten datu-iturri nagusia.

Sailkatzen hasita, esan genezake gomendio-sistemak bi multzo nagusitan banatzen direla: gomendio-sistema ez-pertsonalizatuak eta gomendio-sistema pertsonalizatuak. Lehenek, item berberak gomendatuko dizkiete erabiltzaile guztiei. Erabiltzaileek argazki-kamera bat erosi nahi dutela adierazi eta sistemak argazki-kamera multzo bera erakutsiko die jakin gabe, adibidez, 12 urteko neskato batekin ari diren edo 50 urteko enpresaburu batekin, edo argazkigintzan eskarmen-tua daukan batekin ari diren ala ez. Gomendio-sistema pertsonalizatuak, aldiz, gai dira aurrean daukaten erabiltzailearen hainbat ezaugarri kontuan hartzeko, kamera multzo bat edo beste gomendatzeko. Horretarako, noski, erabiltzailearen hainbat ezaugarri ezagutzea ezinbestekoa da sistemarentzat, eta hurrengo batean ezagutza hori berrerabili ahal izateko sistema datu horiek gordezko gai bada, are eta hobeto.

Gomendio-sistema batzuk itemen analisisian oinarritzen dira gomendio bat egiteko orduan. Liburu bat erosi eta irakurri ostean gustuko nuela adierazi baneuen sisteman, hurrengo liburua erostera joaten naizenean aurrekoaren

ezaugarri antzekoak dituen liburuak gomendatuko dizkit, betiere ezaugarri berriak adierazi ezean. Beste batzuek, berriz, erabiltzaileen analisisia dute oinarri. Item bat gomendatuko didate baldin eta nire antzeko ezaugarriak dituen erabiltzaile batek gustuko izan bazuen edo erosi bazuen. Nire antzeko ezaugarriak dituzten bezero gehienek "Loreak" filma gustuko izan zuten, hori gomendatuko dit sistemak hurrena film bat erostera sartzen naizenean.

Badirudi 90eko hamarkadan sortutako ideia teknologia bilakatu eta, merkataritza-munduan sartzearekin batera izan duen arrakasta ikusita, gure artean geratzeko etorria dela. Oporrak antolatze-ko, gaurkoan, gomendio-sistemek hartu dute lagunaren tokia. Nork daki, hemendik aurrera, ez ote ditudan erabiliko sistema horiek seme-alaben ikaste-modulua, unibertsitate-gradua edo masterra aukeratzeko, gimnasioan zer musika entzun aukeratzeko laguntzeko, gai bati lotutako zer berri irakurri jakiteko, aitona-amonen urrezko ezteietara eramango ditudan zapatak erosteko edo, auskalo, auskalo zertarako! •



Gero eta ohikoagoa da Internet galdera guztiei erantzuteko baliatzea.

GAUR8

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



IMANOL GARCIA

EUSKALDUNAKO GUDA: LISKAR ARTEAN ATEAK ITXI ZITUEN ONTZIOLAREN ISTORIA

1984. urtea. Bilboko Euskalduna ontziolako langileek matxinadari ekin eta enpresaren itxieraren aurkako mobilizazioak hasten dituzte. Asanblada, itxialdi eta abarren bidez 2.471 langile zituen ontziolaren itxiera galaraztea dute xede; ontziolak 1988. urtean itxi zituen ateak azkenean. Itxieraren aurkako mobilizazioak egin ziren garaian langileen eta indar armatuen arteko liska ugari eman ziren. Imanol Garcia da argazkiaren egilea. "Egin" egunkarian hasi zuen bere ibilbide profesionala, baina "Anaitasuna", "Askatasuna", "Punto y Hora de Euskal Herria" eta "Zeruko Argia" gisako hedabideentzako ere egin zituen kolaborazioak. Euskal gatazkaren harira egin zituen argazkiek hainbat hedabide europarren arreta jaso zuten.

1,5€
ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DAGOENeko

ZURE KIOSKOAN SALGAI



7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com

